



3 Paxkal Oxandabaratz, 'Atxuriatik Larrunerat' kultur hilabetearen koordinatzailea

Mugaz bi aldeetako lau herrik parte hartzen duten egitasmoaren berri eman digu Paxkal Oxandabaratz azkaindarrak. Mintzaldi, antzerki, kontzertu, bertso afari, literatur lehia-keta... denetarik prestatu dute negu-sarrera animatzeko. Azaroaren hondar egunetan hasi eta eguberrietan amaitu arte, Azkain, Bera, Sara edo Zugarramurdirat hurbiltzeko gomitatuak gaude guztiak.

6 Iritzia: Mugaz gaindiko harremanak aztergai

28 Kirolizketa: Juantxo Apezetxea pilotaria Profesionalaletara saltoa emateko prest

31 Mintzaldiak: Larre-erretzeen kalteak eta bazkalekuak hobetzeko teknikak

Aurkidi Elkarteak antolatutarik, mintzaldiak izanen dira Donezteben Elizondan eta Lesakan.



Miguel Mari IRIGOIEN Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunidadeko presidentea

Udalen esku dago zaborren arazoari soluzioa bilatzea

Zaborrak Karkarrera eramatea proposatu zuen Sanzek Bertizen, hemendik 160 kilometrotara, Errioxa ondora. Hortarako garraio gastuen erdia gobernua ordainduko duela ere erran zuen, baina ez zuen argitu laguntza hori luzerako izan den edo ez. Lehendik, Iruñerriko Mankomunidadeak ezezkoa emana dio Baztan-Bidasako udalen eskariari. Ikusi behar orain, zer erantzunen duten Karkarrekoek. Momentuz bederen, aukera hori erabaki gabe dago. Bitartean, Bortzirietako Mankomunidadeak Baztan eta Malerreka zaborrik ez onartzea erabaki du, baldin eta lehenik, alde guztiek onartutako alternatiba aurkezten ez bada.

4



Famili guzietan bada ekonomilari bat.



Mégane DIESEL a 1.990.000 pezetatik goiti.

MEGANEK BERE DIESEL MOTOREAK AURKEZTU DITU. Ez du hutsik egiten. Famili guzietan, senideetako bar ekonomilari atertzen da. Megane Diesela bezala. Bertze edozein senide bezala, Megane da. Indartsua,

Eta orain ez kuotarik ordaindu martxora arte.

Renault-en lehendabiziko hiru kuotak oparitzen dizkizugulako, edozein Megane modelo erosteagatik.

48 hilabeterako finantzaketan sarrerako %10etik goiti, %13,05eko TAE batekin. Eta kuota opariarekin, %8,66ko TAEa.

Renault finantzaketa eskaintza berri honen bitartez balagarria, stock-ean dauden ibilgailuetan.

ziurra, fidagarria eta gainera, aurreztailea. Eta hori gutxi balitz, gidariarentzako AIRBAGa dauka eta lagunduriko direkzioa seriean, 1.990.000 pezetarik goiti Megane Diesela. Egunen batcan famili bakoitzean bat egonen da.

Mégane

GIDATZEN DUZU EDO ZAITUZTE?

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Errep. z/g - Tfnoa.: 58 04 31 - ELIZONDO

TALLERES SATESTEBAN

Leitzako Errep. Kma. - Tfnoa. 45 02 82 - DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.

Irun - Iruña Errep. Tfnoa.: 63 06 21 - BERA



LOKAL-LEKUALDAGARRIA SALGAI

60m²ko LOKALA. Lekualdagarrria. Moduloak jarritz alde guzietara haunditzen ahal da. Baita alturan ere. Eraiki ezin den tokietarako eta noranahiko aproposa.

ERRAXA GARRAIATZEKO DESMUNTATU GABE. 4 MODULOTAN

GELTOKIAK
VEHICULOS DE OCASION
(948)631309 - 908 779356

TEILATU BIKOITZA

MODULO-ARTEKO EGITURA ALUMINIO ETA KRISTALEZKOA

4 ARGI-FOKU

BULEGOAREN MODULO

ATE BIKOITZAK

8 mm.tako KRISTALAK

ZOLA BERE DU

INFORMAZIOA

121-A errepidea
Berako tunelaren ondoan / 31780 BERA
Tfno. mugikorra: 908.779356
Bulegoko Tfnoa.: 948.631309 (Arratsaldeko 4,30etatik 8etara)

ARRAZOIA:

Aktibidadea uzteagatik.
Auto berrien salmenta.

DATUAK.....

❖ Paxkal azkaindarra da, Altxa Lili elkarteko kidea eta 'Atxuriatik Larrunerat' Kultur Hilabetearen koordinatzailea.

❖ Aurtengo ekitaldien antolatze mugaz bi aldeetako lau elkarte elgarretaratzeko dira; Azkaingo Altxa Lili, Sarako Etxola, Berako Gure Txokoa eta Zugarramurdi-ko Akelarre.

❖ Egitasmoak Akitaniako Kontseilua eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ukan du.

❖ Ahalik eta arrakastatsuen izan daitezen, herri bakoitzak dituen posibilitate eta azpiegiturak kontutan hartuz antolatu dituzte aktibidadeak

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
AITOR AROZENA

➔ **Paxkal OXANDABARATZ** 'Atxuriatik Larrunerat' kultur hilabetearen koordinatzailea.

"Ekitaldien kalitatea segurtatua dago eta jendeak partehartzea espero dugu"

1986AN URRUÑAKO HAZIA ELKARTEAREN ESKUTIK SORTU ZEN KULTUR ASTEAK, URTEAK PASATU AHALA, EGITARAU ETA HERRI GEHIGOTARA ZABALDU EGINDA. NOLA BALORATU-KO ZENUKE URTEOTAN GERTATUTAKOA?

Historiari begiratu, hastapena Urruñako Hazia elkarteak eman zion aste kulturala antolatuz gai baten inguruan. Gero, hurrengo urteetan egitaraua aberastu egin zen mintzaldiak, mahainguruak, erakusketak eta horrelakoak antolatuz, eta aste kulturala izatetik hilabete kulturala izatera pasa zen. Antolakuntza aldetik ere aldaketak izan ziren eta herri desberdinetako kultur elkarteak parte hartu dute urte guziotan; Azkaingo Altxa Lili, Biriaturko Belatzajaleak...

1995ean, errate baterako, hilabete kulturalak Axular eta Denbora hartu zuen gai nagusitzat eta lehen aldiz mugaz bi aldeetako herriek parte hartu zuten; Azkainek, Sarak eta Zugarramurdik. Akitaniako Kontseilua eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza ere ukan genuen. Aurtengo Akitaniatik 35.000 libera ukan ditugu (875.000 Pta. inguru) eta Nafarroatik 25.000 Libera (625.000 Pta.); orotara 60.000 Libera (milioi terdi Pezeta.).



Lau herrietan egingen diren ekitaldi guztiak euskaraz izanen dira

ATXURIATIK LARRUNERAT IZANEN DA AURTENGO EKITALDIEN GAIA. ZER DELA ETA?

Ez dakit nork proposatu zuen hastapenean mendiari buruz egitea. Guk Azkainen Larrun-

go aferarekin arazoa dugunez, ez genuen nahi kultura eta politika nahasterik, baina gero pentsatu dugu mendiari buruz badirela gai aintz aipatu gabe, beharbada, Azkainen gertatzen dena.

HERRI BAKOITZERAKO ZER AKTIBIDADE ANTOLATU... NOLA EGITEN DUZUE HORI?

Lehenik behar da ikusi herri bakoitzak dituen posibilitate eta azpiegiturak. Azkainen mintzaldiak dira nagusi badelako usadioa min-

tzaldietara jendea biltzeko. Urruñan ez zen hainbertze jende biltzen. Zugarramurdin kontzertuak eta bertso afariak arrakasta izan zuten iaz, eta aurtengo ere hain egitea pentsatu dugu. Beran Kultur Etxea dagoenez posible da erakusketak egitea eta antzerkia Saran ere bazegoen egiterik bainan taldea Berakoa denez, Beran egingen dute. Eta Sarako kiroldegian egingen dira kantaldia eta literatur lehiaketak.

➤ "1995eko hilabete kulturalak 'Axular eta Denbora' hartu zuen gai nagusitzat, eta lehen aldiz mugaz bi aldeetako herriek parte hartu zuten; Azkainek, Sarak eta Zugarramurdik"

Baztan-Bidasoako zaborren aferak soka luzea ekar lezake oraindik

«Baztan eta Malerrekako errausgailuen egoera txarra moldatzeko bide bakarra, errausgailuak ixtea da. Bitartean, behin-behineko soluzioa bilatu beharko da. Mahai gainean jarria dugu Baztan eta Malerrekako zaborrak, momentuz bada ere, Bortzirietako zabortegira eramateko planteamendua».

Alberto OTAMENDI

Ingurugiro Departamenduan
Ingurugiroaren Kalidade Zerbitzuko
zuzendaria

Bertizen, zaborrak Karkarrera eramatea proposatu zuen Miguel Sanzek, hemendik 160 kilometrotara. Lehenagotik Gongorako arduradunek ezezkoa emana zioten Baztan-Bidasoako udalen eskariari. Ikusi behar orain zer erantzuten duten Karkarrekoek. Momentuz aukera hori erabaki gabe dago. Bitartean, Bortzirietako Mankomunideak Baztan eta Malerrekako zaborrik ez onartzea erabaki du, baldin eta lehendik alde guztiek onartutako alternatiba aurkezten ez bada.

baztan eta Malerrekako hiri hondakinekin azken urteotan dagoen problema larriagotzen ari da urteak pasatu ahala. «Zabor errausgailuak egoera penagarrian daude. Gaur egun zabor gehiena labearen inguruetan erretzen da; tximiniek ez dute inolako filtrorik; sortzen dituzten errauts eta hondakinak mendian beheiti botatzen dira eta urte

hauetan aberiak moldatzen eta konponketak egiten milioi aunitz gastatu dira, eta azken finean, biltzen den zabor guzia erretzeko kapazidaderik ez duten labeak direla ahaztu gabe». Hitz horiekin deskribatzen da labe errausgailuen egoera 'Giroaz' eta 'Lorea' enpresek duela urte terdi egin zuten txostenean. Geroztik egoera bere horretan segitzen du.

Zaborrak kanpora bidaltzeko nahia

Udal ordezkariak, ordea, zaborrak kanpora eramateko ahalgina ari dira egiten. Lehenik Iruñerriko Mankomunitateari

TESTUAK:
JOXEMANUEL IRIGOIEN


egin zioten eskaria, baina handik, ezezeko erantzuna eman zieten duela hilabete terdi. Miguel Izuk, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariak erran zigunez, «bertze herrietako zaborrak onartze-ko topea gainditua» dute, eta hori horrela izanik, ezin dute Baztan-Bidasoako hondakin onartu.

Berrikiago, orain dela aste batzuk, Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuako lehendakaria, Bertizera etorri zen inguruko alkateekin solastera, eta hemengo zaborra Karkarrera eramatea proposatu zien. Proposamena borobiltzeko, garraio gastuen erdia Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko zuela ere hitzeman zuen Sanzek. Ez zuen argitu, ordea, garraio gastuetarako emanen duen laguntza luzera begira mantenduko duen edo ez.

Karkarreko aterabidea ez dago segurtatua

Sanzek proposatutakoa kontrastatzeko, TTPI-TTAPA Fernando Ederrarekin jarri da harremanetan, Karkarreko zabortegiko lehendakariarekin. Fernando Ederrak erran digunez, «harrituta» gelditu zen «periodikoetan leituta» ikasi baitzuen Sanzek Bertizen erran zuena, eta «ofizialki ez baitugu inolako eskaririk hartu», ez Baztan-Bidasoatik eta

Azgazki hau Baztanen ateria da, Apaioalarreko zabortegian.



ezta gobernutik ere. Eskaria ofizialki iristean zer erabaki hartuko duten galdetu diogu segidan Karkarreko ardura-dunari, baina ez digu hipotesirik aurreratu nahi izan. «Serioski negoziatu beharko litzateke. Hemen ere Gongoran duten mugapen berdina dugu

kanpoko basura onartzeari dagokionez», baina argi dauka azkenean onartzea erabakiko balitz, «behar den bezala berexiak eta bilduak» hartuko dituztela soilik mendialdeko zaborrak, eta «ez dena nahasita. Gauzak ez dira hain ximpleak izanen» gaineratu du

Fernando Ederrak. Dena dela, bere ustez ez dirudi hemengo zaborrak ukatzeko alde aurretiko arrazoi haundirik dagoenik «Karkarreko zabortegia ere, nafartarren diruarekin eginga baita azken finean». Baina afera guzi honetan, ez zaio logikoa iduritzen «bidean bertze zabortegi bateko atetik pasatu eta 80 kilometro gehiago garraiatu behar izatea» gure zaborrak.

Azkenean ezezkoa bada, orduan zer?

Prozesua bere osotasunean agortu baino lehen ezin da inolako hipotesirik baztertu. Hortaz, galdera hortxe dago. Zer gertatuko da Karkarren ere, Gongoran bezala, ezezeko erantzuna ematen badute? Itxura guzien arabera, bertan bilatu beharko litzateke soluzioren bat bertako zaborrei. Edozein kasutan ere, bilketa modu selektiboan egitea eta ahalik eta hondakin gehiena birtziklatzea kontutan hartua izanen dela iduri du. Jakina, horretarako udalek erabaki egin beharko dute zein den arazoari eman nahi dioten soluzio definitiboa. Eta soluzio horretan egonen da sartua zabortegi edo dena-delakoa zein herritan egonen den kokatua. Ageri denez, Baztan-Bidasoako zaborren aferak soka luzea ekar lezake oraindik. ■

«Alde guztiek onartutako alternatiba aurkezten ez den bitartean, Baztan eta Malerrekako zaborrik behin-behineko ez onartzea erabaki du Bortzirietako Mankomunidadeak»



Zertan dago zaborren afera Sanzek egin zuen bisitaren ondotik?

Sanzek Karkarreko posibilitadea estudiatu behar zela erran zuen, eta baimena eskatzea hemengo udalen esku utzi zuen.

Miguel Mari IRIGOIEN

Bortzirietako Hiri Hondakinaren Mankomunitateko presidentea

Ondotik egindako bilera batean, gestio hori egitea Doneztebeko alkateak hartu zuen bere gain eta ortzegun honetan joatekoak gara Karkarreko

instalazioak bisitatzeraz. Zailtasun dexente dituen kontua da; kilometro aunitz dira, eta Sanzek garraio kostearen erdia gobernuak ordainduko zuela erran bazuen ere, ez dakigu hori betirako izanen den edo ez, giltza gobernuaren esku baitago. Zer pasatuko da Karkarren ezezkoa emanez gero?

Gure alternatiba propioa bilatu beharko genuela Karkarren bezala ahalik eta zabor gehiena birtziklatuz, eta eskualde guzira izan beharko zuenez, nonbait erditsuan bilatu behar-

ko zaiola lekua. Ez du zentzurik leku horrek Otsondon edo Endarlatsan izateak. Bide horretan, interesgarria iduritzen zait Sakanan egin duten obra, hemen bezala leku euritsua baita hura ere.

Zein da Bortzirietako Mankomunidadearen postura?

Joan den astean batzarra egin eta zera erabaki genuen: alde guzien artean onartutako alternatiba aurkezten ez den bitartean, Baztan eta Malerrekako zaborrik behin-behineko ez onartzea Berako zabortegian.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: tipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
Internet:
<http://www.encomix.es/ttapi-ttapa>
e-mail:
ttapi@encomix.es
e-mail:
ttapi@mail.sendanet.es

zendaria: Joxemanuel Iri-
ien. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
ozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
txea, Juainas Paul, Kristina Bo-
n, Bittori Telletxea. **Berri-
maleak:** Joseba Azpiroz, Este-
n Arozena, Juana Mari Saizar,
nhoa Mutuberria, Iban Isasi,
ema Aldabe, Patxi Otxandore-
n, Ixabel Maia, Josune Etxe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba
arabide, Alizia Olaizola, Mar-
ri Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
l Gerendiain, Jacqueline, Eli-
bet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
Txoperena, Pello Apezetxea,
n Arozena, Kristina Boan.
laboratzaileak: EHNE Nafa-
a, Mikel Bezunarte, Joxe Ja-
er Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.
pi-ttapak ez du bere gain har-
en derrigorrez, aldizkarian adie-
zitako erranen eta eritzien eran-
ukizunik.

akunde Laguntzaileak: Be-
Leitza, Goizueta, Areso, Baz-
n, Urdazubi, Zugarramurdi eta
arako udalak, Bortzirietako Eus-
ra Mankomunitatea, Malerre-
ko Zerbitzu Mankomunitatea,
garramurdiko Akelarre Elkar-
a...

GAURKOTASUNEN GAIA

Mugaz gaindiko harremanak

Bada pozteko arrazoirik, baina neri, duda sortzen dit geroak



Solange MARILUZ
Saratarra

Orain arte gure arteko harremanak nagusiki pertso-
nen edo baserrien
artearen egiten ziren. Egia da le-
hen laborantza biziki inportan-
tea zela eta auzoko lan harre-
man aintz bazela herrien mu-
gei kasurik eman gabe. Kontra-
bandoak eragin haundia zuen
harreman horietan.
Bizimoduaren aldaketarekin har-
remanak ttikitu dira: kontraban-
doa murriztu da; gure ofizioek
gero eta gehiago sorlekutik kan-
po lan egitera behartzen gaituz-
te;... Baina, ber denboran, ber-
tze harremanak garatu dira, el-
karte eta aginte publikoen arte-
koak, batez ere. Azken hamar-
kada huntan, elkarteak egintza
frango antolatutako dituzte elgarre-
kin, gehienak kulturalak. Ber-
zenez, aginte publikoek ge-
ro eta gehiago biltzen dira la-
nean hartzeko.
Pozten ahal baldin bagara az-
ken garatze horien ikusiz, ez du-
gu aiantzi behar, azken finean,
herriar guti hunkitzen dutela.
Gainera, jakinik harreman gehie-
nak euskaraz egiten direla eta
ikusiz nola tratatua den/dugun
gure hizkuntza, duda sortzen
zait geroan pentsatzean.

Elgarlanean aritu gara beti eta hortan segituko dugu



Helena JURIO
Zugarramurdiarra

Zugarramurdi-
delako muga ho-
ri ez da sekulan
oztopo izan eus-
kaldunen arteko harremanetan.
Harreman gehiena Saratarrekin
izan dugu, hurbilena dugula-
kotz, baina herrian gehienek
iparraldean senideren bat du-
gunez, bertze herri aunitzekin
ere lotura haundia dugu.
Lehen harremanak desberdinak
ziren, gerla denboretakoak edo
kontrabandokoak, baina el-
garlanean aritu gara beti eta hor-
tan segitzen dugunaren lekuko,
urtero egiten saiatuko garen hi-
labete kulturala dugu.
Hala ere, saiatzen gara, eta lor-
tu ere lortzen dugu, harreman
hori hilabete hortarat ez mu-
gatzea, urte osoan zehar inpo-
satu nahi daukuten muga hori
gainditzeko.

Harremanak izateko inportanteena gogoia izatea da



Jabier PATXEKO
Beratarra

Nire ustez Ipa-
rraldea eta Hego-
aldearen artean
orain dauden har-
remanak oso desberdinak dira
lehengo harremanekin konpa-
ratuz. Lehen harreman natura-
lak ziren, gizarte mailakoak.
Gehientsuenak baserriatik bizi zi-
ren eta hoietatik aunitz kontra-
bandoa egiten zuten. Hor sor-
tzen ziren harremanak, egiazko
erlazioak. Eta gainera bazuten
bertze lotura bat: euskara.
Orain harremanak artifiziala-
goak dira. Erlazio hauek elkar-
teek edo kultur taldeek propo-
satuak izaten dira. Kasu hone-
tan harreman naturalak sortzea
zaila da.
Bi kasutan hizkuntzak garrant-
zi haundia du. Lehenbiziko ka-
suan lagungarri da, bigarren ka-
suan traba izaten ahal da, mu-
ga bat. Halere argi dago lehen
gehienak euskaraz jakitea, ho-
bekiago eta erraxago elkar-uler-
tzeko lagungarri zela.
Orain gazteen artean egiten di-
ren harremanak mugaz bi alde-
etako kuadrilen artekoak dira,
eta hoiene artean, lehen bezala,
euskara nagusi da.
Dena den, harremanak izateko
inportanteena gogoia da.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non:** MALDAERREKA S.L., Bittoria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzealde Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jasotzen du

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



Mugaz gaindiko harremanak

Izaskun ETXEPETLEKU

Nerurria: Zortziko haundia

Hegoa eta Iparraldean dago eremu zabala baina guztira ailegatzen da euskal hizkuntzan itzala eta jakinaz guztiontzako hain garrantzitsua dala zazpi herriak kontatzen dira bakarria balitz bezala.

Beraz ez dago muga beharrik lurralde baten barnean nahiz oztupoak azaltzen diren batean edo bestean Espainia ta Frantziak behingoz utzi gaitzaten pakean Euskal Herria euskaldunena izaten den bitartean.

Posta elektronikoa Argentinatik

Kaixo TTPI-TTAPA! Argentinatik nire agurrik beroena.

Lehengusina bati esker, aldizkari hau jasotzeko aukera dut. Nire gurasoak Arizkunen jaiolak izanik, benetako ilusioa egiten dit aldizkari hau hartzeak. Imagina dezakezue, beti Nafarroaren aldeko propaganda eta Baztangoarena hain zuzen, egiten dut Argentinako Euskal Etxeetan eta honek ematen dit aukera ezinhobea.

Bromaz aparte, Argentinan ere euskararen aldeko lana egiten dugu: euskara klaseak ematen ditugu (300ren bat ikasle ditugu) eta umeeen baliabiderik gabe zaila izanda ere, urtero egun bateko topaketa antolatzen dugu euskara zabalatzeko asmoz.

Mila esker! eta jarraitu zuen lanarekin.

MIREN AMAYA AROZARENA
FEVA@SMINTER.COM.AR

Etxalarkoei eta batez ere Altxatakoei:

Pasa berriak dira Sara-Etxalar topaketak eta kanpotik begiratu dena hagitz ongi eta polita atera da. Baina barrutik, nik behintzat, ez dut horrela ikusi. Azken aldi honetan ari naiz erraiten Altxatak aldatu behar duela gainetik beheiti, adibidez, Juntan. Heldu den urtean

lau soziok sartu beharko dute Junta berria osatzeko eta lan egiteko, bertzela berdin da etxean egoten bagara.

Bertze aldetik, ikusten dut, nere burua ez dela Altxataren barruan den jendearen errepresentazioa, adibide gisa topaketak antolatzean bakarrik sentitu naiz eta laguntza eskatu behar izan dut Altxatan ez duden nere lagunei. Orain badaikit bati baino gehiagori gogoratuko zaiola galdera hau: eta gazteak, zergatik ez dira sartzen Altxatan? Inork ez daki, nik badut teoria bat: gazteak ez dira sartzen gurasoak hor direlako eta biek (gazteak eta gurasoak) arrunt diferente pentsatzen dutelako, adibidez gaupasari buruz.

Bukatzeko, TTPI-TTAPAREN 181. zenbakian erraiten nuen kezkatua nengoela batzar orokorrean sozio bat bakarria agertu izanaz. Kezkatua ere bai, bertso bazkaria antolatu eta inor ez apuntatu izanaz (galdetu Herriko Ostaturkoei), kezkatua ere bai Gasna Feria egunerako etxez etxe ibili nintzelako laguntza eskatzen (inork ez du bere burua eskeintzen). Kezkatua Sara-Etxalar afarirako 70 lagunentzat tokia eskatua eta 17 lagunek hutsegin izanaz.

Horrela ezin da, gauza batzuk

antolatu eta sozioak ez badira mugitzen jai dugu, norentzat ari gara lanean? Zergatik?

Altxata barrenean hausnarke-ta sakon bat egin behar dugu. 1997ko Asanblada orokorrean ikusiko garelakoan.

PATXIKU
ENA: 72.671.151-Y

Areso kotxe berri bati erasoak

Azaroaren 4an kotxe berria erosi nuen eta arazoaren 7an, aurkeko atletik hasi eta atzeko pilotaraino marra bat egin diote. Ez da lehenbiziko aldia, beste kotxean ere egiten zizkidaten eta. Aditu dudanez beste kotxe batzuei ere egin omen dizkiote. TTPI-TTAPAREN bitartez salatu nahi dut. Izan ere, gutxi gora behera uste dut badakidala zein izan daitekeen eta esan nahi diot kontuz ibiltzeko, gauzak gehiegi okertu ez daitezen. Gero damutzeak ez du balioko eta. Zerbait baldin baduzu nire aurka, etorri eta hitzegingo dugu gizonak bezala, eta ez ibili atzetik aluke-riak egiten. Zure zain nago.

BAUTISTA ETXARRI



LESKA



Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

 **Jon GORTARI** Oronoztik

Euskaraz idazteko garai bateko oztopoak



Xorroxin Irratian gabiltzanok eta, nola ez, TTPI-TTAPA aldizkariaren irakurle kartsu gare-

larik, nahi nituzke iritzi eta gertaera batzuk argitaratzea, hainbertzek hartu eta irakurtzen dugun aldizkari hontan. Lehenbizi, erran behar, Nafarroa zahar hontako goitik beharainoko euskaldun bezala (Arraiozko Indakoa baserritik bai nator) euskaraz hasi nintzela zerbait idazten direla nahiko urte, Zeruko Argian, Arrate, Prinzipe de Biana, Herriari... *Baztan-Bidasoa* deritzan liburuxkako txettoa ere neronek burutua izaten da, eta dena erran behar baita, liburu hone-

Denbora zailak haiek!

Euskaraz zerbait idazten zuenari gehienez

behatzarekin apuntatua

izaten zen. Erdi-ixilpean bezala idazten genuen.

Gaur, zorionez,

askatasun gehixeago

daukagu euskaraz idazteko.

kin izan genituen nahiko oztopo edo traba argitaratzeko. Zergatik? Bere azalean sartu zitzaizkiolako xuri-gorri eta berde koloreak. Jakina! Francoren garai zarrak ziren, gainera, Manuel Fraga Iribarne "Información y Turismo"ko ministroa zelarik. Fragaren karta hartu nuen, "la no conveniencia de la publicación de la portada por los colo-

res utilizados" erranez. Kolore bakarra onartzen zuten eta halaxe argitaratzen, berde hutsean. Denbora zailak haiek! Euskaraz zerbait idazten zuenari gehienez behatzarekin apuntatua izaten zen. Erdi-ixilpean bezala idazten genuen. Gaur, zorionez, askatasun gehixeago daukagu euskaraz idazteko. Horrelaxe egon zen zapaldua Euskalherri osoa. Zapaldua, bai, bainan ez garaitua. Garaituak izan bagina ez ginake Euskalherri izango. Hemen gaudede, bada, geuren larrubanean sofritu genituen zapalderiak adierazteko, jakinarazteko, batez ere ondolik jarraitzen diguteneri; diktadurak, zapalderiak, indarkeriak... ez due-la inungo onik ekartzen oihukatzeke. Diktadurak, indarkeriak, edozein nazioetakoa izanda ere ez du Herriarendako bakerik ekartzen ahal. Oraingo politikoek, batez ere diktadura eta indarkeriari haiei kutsua zai-netan daramaten horiek nahi lukete hori ixilduarazi edo bazterrean utzi, hau erranez: "ba, hura

pasatu zen, utzi behar dira gauza haiek atzentzerara...". Eta nola pasatu zen? Urrundu egiten dira bai, bainan, ez ahaztu, ahaztu ezinak baitira. Aldizkari hontan idazte-
ra animatu didate eta hitz ematen dautzute, noiz-behinka bedenik egingo dudala plazer haundiarekin. Hau izan dadila sar-
rera bezala, hasmenta eman behar baita lehenik.

 **Ana ERASUN** Irakaslea

Lehen hala, orain hala, gero ez jakin nola!



Bistan da, gure bazter hauetako baratzeak azkarki aldatu direla aldi batekotik honat.

Berriki artio, sasoiari sasoioa landatu ta jorratu ondolik eskuratzen genuen (luhartza zikinen batek azpazuen dena galtzen, behinpein). Gaur den egunean, nonahiko baratzetara begiratu ta bertakoaz gain espinakak, berenjenak, alkatxofak, edo Bruselako azak ikusiko ditugu. Hori da baratza hornitzen jakitea, alafede!

Ez da ordea gauza bera somatzen gure mintzairaren baratzean. Gure mintzairaren baratzean mutzitza, sora mugia, ezker-ai-hena ta lapaitzak gailentzen ari zaizkigu, alegia! Egunaren buruan pixka bat erreparatu ezker horrelakoak adituko ditugu:

ORAIN LEHEN
eskusa aitzaki
keja arrenkura
sustoa ikari
pegatu itxeki-iraxi
granoa pikor
potajea eltzari
koladorea irazki
binagria ozpin
tardatua berantsi
puntual tinel-tenorez
flema karkaxa
atxis arrosin
arraultzeak paratu-errun
inutila! deuseza alena!
zori onak urtebetze
Ta zer erranik ez bertze
hauen gainean:
• "es ke da la letxe"

- "a toda letxe heldu da"
- Naiz Amaia...dago Miren?
- Ahal naiz jostetara joan?

Kontuak-kontu gure mintzairaren baratzea jorratzen hasteko tenorea dugula iduritzen zait. Horretarako, M. Izeta, P. Perurena ta ixilean xirripixarrapa ari diren bertze aunitzen lanetaz gain egunaren harat honatean gu-

Gure mintzairaren baratzea jorratzen hasteko tenorea da. Horretarako Izeta, Perurena ta bertze aunitzen lanetaz gain egunaren harat honatean erabiltzen ditugun solas ta erranairuak ditugu jorrai ta aitzurrik hoberenak, duikabe!

re etxe xokotan edo erausian erabiltzen ditugun solasak ditugu jorrai ta aitzurrik hoberenak, doike! Euskalkia bizirik dugu ta euskara batutik hagitz hurbilekoa gainera. Euskara batua ezpaita gipuzkeraz soilik hornitua. Eskoletan aritzen garenok zubi lana egin beharko genuke, eskolako lehenbiziko urte-tan, haurrentzat hurbile-na den tokian tokiko min-tzaira probextuz hasi eta adinean koxkortu ahala baturat bideratzeko. Horrela hizkuntza hornitzen ikusi ahal izanen baitugu. Guraso ta irakasleok elkarlanean hasi beharko du-gu; ez da errexa gero! Go-go eta asti pixka batez, bertakoa probextuz eta gainerakoei muzin egin gabe baratze ederra plan-tatzea espero dut.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egin 96-XI-14

«Nere bizi guziko lana da liburu hau. Ezta urte bateko lana bakarrik, baditut hainbertze urte hortan ari naizela»

Mariano IZETA
Elizondoko idazlea
Egin 96-XI-14

«Berako organoa konpondu zenetik errazagoa da jotzeko eta soinua ere garbi eta argiagoa du»

Josu GOIA
Berako organojolea
Nafarkaria 96-XI-15

«Osasuna taldean, historia guziko jokalaririk labealdi onenetako bat hurbiltzen ari da»

Jose Manuel ETXEBERRIA
Goizuetarra. Osasunako talde nagusiko 2. entrenatzailea
Diario de Navarra 96-XI-11

«Gobernuak nekazal aseguruaren %25a subentzionatzen du eta abeltzaintza aseguruaren %10a bertzerik ez. Hori abeltzainenganako diskriminazio berri bat da»

Mikel PETRIRENA
EHNE Nafarroako lehendakaria
Egin 96-XI-8

◆ **Frutarik gustokoena?**

◆ Gezurra badirudi ere, ez naiz frutazalea, baina 'Clementina' gustora jaten dut.

◆ **Nondik ekartzen duzue?**

◆ Laranja eta horrelakoak Valentziatik, bertzelakoak Nafarroatik eta Errioxatik. Egiten diren tokietatik..

◆ **Abesbatza kantatzen duzu. Ahotsik gustokoena?**

◆ Ni bajua naiz eta onena Nicolai Ghiaurov da neretzat.

◆ **Norat joanen zinen guztora abesbatzarekin?**

◆ Maila izanez gero Tolosara edo Torrevieja-ko habanera eta polifonia jaialdira.

◆ **Musika modernoa edo klasikoa?**

◆ Klasikoa, Mozart aunitz gustatzen zait.

◆ **Basurde elkarteko lehendakari edo Beti Gazteko bazkide?**

◆ Nire kasuan biak eta gainera Arkupe pilota elkarteko kide.

◆ **Futbola, pilota edo txirrindularitza?**

◆ Futbola eta pilota, txirrindula baino gehiago.

◆ **Futbol talde bat?**

◆ Osasuna taldea eta Felix Ruiz eta Zoco joan zirenetik, Real Madrid ere segitzen dut. Beti Gazte ere bai, noski.

◆ **Pilotari bat?**

◆ Retegi II.a ikaragarria izan da. Orain Beloki Eugi baino gehiago.

◆ **Valentziako Fallak edo Lesakako San Ferminak?**

◆ Polbora aunitz gustatzen zait baina Lesakako bestak gehiago.

◆ **Feria egunerako planik onena?**

◆ Lan egitea tokatzen zait. Bertzenaz azinda lehiaketa eta pilota partiduak ez ditut sekulan galtzen.



Guillermo BALLESTER
Lesakarra
Fruta banatzailea



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

☛ Zolak jartzen ditugu:

- Kortxoak
- Moketak
- Parketa
- Sintasola

☛ Gure kolokazio tailerra daukagu

☛ Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak
konpromezurik
gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Alkaiagako industrialdea 1997an martxan egonen da

Alkaiagako industrialdea datorren urteko lehen sei hilabetetan martxan jartzeko moduan egonen da. 1994an hasi ziren urbanizazio lanak bukatuak daude, azaroaren 9an Lesaka eta Berako alkateek eta Nafarroako Gobernuak ordezkariak egindako bisitan ikusi zuten. Halere, Zalaingo industrialdetik dagoen sarbide nagusia ez dago egoera onean eta Alkaiagakoa ofizialki zabaldu aitzinetik konpondu beharko du Nafarroako Gobernuak.



Jubilatuak Belateko tunelak bisitatu zituzten

Arkupeak jubilatuen elkarteko 350 bazkidek Herrien arteko Anaitasun Besta ospatu zuten azaroaren 7an eta ekitaldi nagusi bezala, Belateko tunelaren lanak bisitatu zituzten. Sei autobusetan joan ziren eta Almandozko tunela 'estreinatu' zuten modu honetara. Gero, bazkaria izan zuten Beolan, Miguel Sanz lehendakaria eta Ayesa eta Palacios kontseilariarekin.

Argazkia: ONDIKOL

1936an jaiotakoen kinto bazkaria abenduaren 8an

Abenduaren 8an ospatuko dute 1936an jaiotakoek beraien hogeitabosgarren kinto bazkaria. Zilarrezko bilkura hau ospatzeaz gain, aurten 60 urte bete dituzte eta hirugarren kintan daudela erran daiteke.

Bazkarirako izena emateko epea abenduaren 3an bukatuko da. Horretarako Berako Zalain jatetxera deitu behar da (630967 telefonoa).

BERTIZKO PARTZUERGEOA

Natur aktibitateei buruzko lehen kanpaina eskoletan

Bertizko Turismo Partzuergoak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi Sailaren laguntzarekin, martxan jarri du Natur aktibitateei buruzko lehen kanpaina. Kanpaina honen bitartez, Iruñeako Navarro Villoslada eta Lodosako Pablo Sarasate ikastetxeetako gazte taldeak (14-18 urteetakoak), 3 egunetako egonaldia egiteko aukera izanen dute Baztan-Bidasoako aterpetan, Beintza, Doneztebe, Elizondo eta Lesakan,

hain zuzen.

Ingurugiroarekin eta Naturarekin harremana daukaten kirol ekintzak burutu ahal izanen dute; baita, eskualdearekin erlazioz atutako gai berezi bati buruzko programak landuko dituzte (Historia eta Ohiturak, Geografia, Baserria, Historia-Kirolak). Nekazal munduaren ezagutzea, berezitasunak, bizitzeko eta lana egiteko modu ezberdinak ezagutzeko aukera ere izanen dute.



Bidasoako Trenaren urteurrenaren inguruan Bertizko Partzuergoak antolatutako ekitaldien artean, Oronoz eta Arraioz arteko ibilaldia egin zuten azaroaren 10ean. Hiruretan hogeita hamar lagun ibili ziren trenbidea izandakoaren barna eta hau berreskuratzeak izanen dituen abantailak ikasi zituzten

Arg.: Diario de Navarra

Dia

**Autozerbitzua
deskontua**

**Hamabostero
ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

**BOTXO
ostatua**

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA



GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

Ibardingo auto pilaketa arazoak arindu nahi dira

Udalak eta merkatariek bide berri bat eskatu diote Gobernuari

KRISTINA BOAN

Ibardin inguruan, bi errepide zatiak elkartuz benten gunea inguratuko duen bide berri bat egitea eskatu diote Nafarroako Gobernuari Herriko Etxeak eta Ibardingo merkatariek.

Gaur egun, zenbait egunetan ibilgailuak pilatu egiten dira Ibardinen eta zail egiten da mugitzea. Sarbidea bizkortzeko, bentak inguraturako dituen 100 metro inguruko bidea egitea proposatu diote Nafarroako Gobernuak ordezkariei, azaroaren 9an egin zuten bisitaldia aprobetxatuz. Manuel Iriarte alkateak adierazi zuenez, "auto ilara haundiak sortzen dira eta honek, bisitaria aspertu dezake. Ate ondoan dugu turismoa ezin dugu nolanahi galdu". Momentuz, "lehenbailehen estudioa egin eta bidali behar da" dio alkateak.

Kontribuzio berezien sistemaren bitartez egin nahi du udalak obra.



Ibardin inguruan pilatzen diren autoak direla eta «bertan dagoen turismoa galtzeko arriskua» ikusten dute Herriko Etxeak eta bentetako merkatarien elkarteak

Arg.: Joxemanuel

Hori egin ahal izateko bentetako nagusiek lanaren zati bat ordaindu beharko lukete.

Bertalde, gauegun-go Larungo pistaren erabilera masiboa mugatuko duen ordenantza ere egin nahi du udalak. Bertako komertzioetako langile eta zerbitzu publikoek baka-rrik erabili ahal izanen dute, udalaren ordenantza onartzen bada.

Udazkeneko zine emanaldiak hasiak dira Kultur Etxean

Joan den igandean, azaroak 17, "Un loco a domicilio" filmearen emanaldiarekin hasiera eman zitzaion aurten udazkeneko zine programazioari. Igande honetan, azaroak 24, "Lago Ness" pelikula emanen dute. Abenduaren lehen egu-

nean, "Jumanji" izanen da ikusgai eta abenduaren 8an, "Eraser".

Emanaldi guziak Kultur Etxean eskainiko dira, arratsaldeko 5etan eta 7,30etan. Herriko Etxeak antolatutako emanaldiak eta sarrera 400 pezeta-koa izanen da.

flash

Liburuzain berria

Orraga Urbiola da udal liburutegiko arduradun berria.

Joxelu Etxeberriak

gose greba mugagabea hasi zuen azaroaren 14an Lugoko Monterroxo garzizelan. Eraberean, bere aitak semearekin elkartasunean, Herriko Etxeko kalabozoan itxialdia egiten ari da, egun berean hasita. Asteburuetan isolaturik egonen bada ere, aste egun ez bisitak egiteko deialdia luzatu dute. Bitartean, zenbait familik otorduak eramateko txandak egiten ari dira.

Diapositiba emanaldia

eskainiko dute Inurragi anaiek azaroaren 29an, ortziralean, arratsaldeko 9etan Gure Txokoan. Argazkiak Himalaian egin duten azken espedizioari buruzkoak (Shisha Pangma) izanen dira argazkiak. Ekitaldia 'Atxuriatik Larrunerat' egitarauaren barnean dago.

Javier Manterola

TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 630 031 • BERA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
63 11 06
BERA

LOZOTEGI-JAIONE



Altzate, 19 • 630786 • BERA

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

SAROB
okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Lesakako Kultur Ekitaldiak

Lesakako Euskara Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunidadearen laguntzaz antolatutako Kultur Ekitaldiak burutzen ari dira egunotan. Asteazkenean haurrentzako birziklai-tailerra burutu zen Irain eskolako patioan, Arte-latz taldearekin.

Datorren ortziralean, azaroak 29, arratsko 7,30etan *'Bertsolaritza eta telebista'* gaiari buruzko mahaingurua izanen da Beti Gazte elkartearen. Jon Sarasua, Joxerra Gartzia, Estitxu Arozena arituko dira solasean eta Estitxu Fernandez izanen da moderatzailea.

Abenduaren 3an, asteartez, *'Igurtzi nazazu berriro, laztana'* izeneko poema erreztaldi erotikoa egingen dute arratsko 7,30etatik aitzinera Matxinbeltzenean Mikel Markez, Asier Serrano eta Josemari Karrerek.



77azienda aurkeztu ziren joan den urteko lehiaketan

Ferriak ortzegun honetan ospatuko dira

Beti bezala,azienda lehiaketa izanen da ekitaldi nagusia

AITOR AROZENA

Asteazkeneko Merkatu egunaren ondotik, ortzegun honetan, azaroak 21, ospatuko dira Bortzirietako ferriak. Egitarauari dagokionez ez da aldaketa haundirik sumatuko. Goizetik, lehiaketan parte hartu-

ko duten hainbat azienda ikusgai izanen dira plazan eta gisa guzietako salmenta postuak hedatuko dira herrian barrena. 11,30etan Larretxea eta Arrospideren arteko aizkora norgehiagoka jokatu da. Azienda lehiaketako sariak banatu baino lehen Egaña,

Euskitze eta Peñagari-kano bertsolariak kantari arituko dira kioskotik.

Arratsaldean, profesionalen arteko pilota partiduak jokatu dira frontoian eta dantzaldia izanen da Orioko *Muxutruk* taldearen eskutik.

flash

Nabaz eta Katazpegi

auzoetara edateko ura banatzeko lanak egiteko lehiaketa zabaldu du Herriko Etxeak. 124.447.121 pezetakoa da hasierako aurrekontua eta proposamenak azaroaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean.

Frain auzorako

bidearen urbanizazio lanak egiteko lehiaketa zabaldu du Herriko Etxeak. Hasierako aurrekontua 35.462.332 pezetakoa da eta proposamenak hilaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira.

Amaia Zubiriak

kantaldia eskainiko du larunbat honetan, azaroak 23, gaueko 10etatik aitzinera San Martin elizan. Kantaldia Arrano elkarteak antolatu du *'Arte eta Kultura'* kanpainaren barnean. Sarrera 600 pezetakostako da.



Aranguren

Aroztegi mekanikoa

- **Leihoak**
- **Aurre-markoak**
- **Eskailerak**
- **Fabrikanteak gara**

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mugikorra: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

ORBELA gimnasioa

- Squash eta sauna
- Hidromasaje bainua
- Muskulazio-aretoa
- Kirol masajea

Antoiu 21 • ☎ 637950 • LESAKA

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

CSI lantegia 1998rako pribatizatuko da

Estatuko Industri Agentziako
Lehendakariak honela erran zuen

AITOR AROZENA

«1998ko udaberri-
rako CSI lantegia sek-
tore pribatuaren esku
egonenda». Honela so-
lastu zen Francisco Pra-
da, Estatuko Industri
Agentziako lehendaka-
ria azaroaren 5ean Lesa-
kara egindako bisital-
dian. Halere, Gobernu-
aren nahia «etorkizune-
rako konpetibitatea se-
gurtatzea» omen da eta
horretarako zenbait in-
bertsio eginen dira da-
torren urteko martxora
bitarte.

Pradarekin batera,
Ramón Bultó Nafarroa-
ko Gobernuako Industri
kontseilaria ere CSIn
izan zen eta bere erra-
netan, Diputazioaren
kezka zera da: «priba-
tizazioaren ondorioz ez
dadila enpresa edo lan-
gilegoa kaltetua suer-
tatu».

Sindikatuak ere lais-
ter eman dituzte beraien
urratsak ikuspegi be-
rriaren aitzinean eta
Enpresa Komiteak «priba-
tizazio prozesuan
parte hartzea» eskatu
du.



Ikatzuloko iturria egin dute auzolanean

Uda honetan iturri berria egin
dute auzolanean Ikatzulo ingu-
ruan. Ehizi garaia bukatzeaz da-
goen honetan, auzolanean parte
hartu zuten gehienak ehizta-
riak izan zirela gogoratu dute,
nahiz eta iturriak denek eginen
dien zerbitzua. Argazkian age-
ri denez, itxura ederrarekin utzi
dute, nornahik erabiltzeko ere.



Juanjo ERRO

ZURGINDEGI LANAK OROKORREAN
MOBLE ZAHARREN KONPONKETA

Tel.mug. 989.800249 • LESAKA

ETXEBERRIA OSTATUA

PLAZA ZAHARRA, 21 • TFNOA: 63 77 00
LESAKA

LESAKA
AUTO-ESKOLA



FERIA ONAK PASA!!

Albistur, 39H • ☎ 63 78 70 • LESAKA

MARIXUS

Elektragailuak

ENETERREAGA ANAI-ARREBAK
Zarandia, 3 • ☎ 63 70 70 • 31770 LESAKA

Bertako zerbitzu teknikoak
Elektrizitatea eta Antanak (parabolikoak, kolektiboak...)
Iturgintza eta bainuak
Elektragailuen errekanbioak

☆ **IZARRA** ☆
OKINDEGIA

Ongi pasa ferietan!

Plaza Zaharra, 13
☎ 63 78 55 • LESAKA

IKASOFT

Honekta zaituz INTERNET-era
eta ikasi gurekin

- @ Internetera konektatzeko zerbitzu publikoa
- @ Internet ikastaroak
- @ Informatika prestakuntza gela
- @ Informatika ekipoen salmenta
- @ Sareen instalazioa eta moldatzea
- @ Internet banatzailea
- @ WEB orrialdeen diseinu eta programazioa

Cipriano Larrañaga, 3 behea
IRUN
Faxa eta Tfnoa: (943) 61 46 85

ETXALAR

Kultur Egunak azaroaren 21ean, ortzegunean eta 23an, larunbatean

Lore, landare eta arbolei buruzko hitzaldia ortzegunean eta bertso saioa larunbatean

PELLO APEZETXEA

Euskadi Irratian ari-
tzen den Jagoba Erre-
kondo etorriko da azaro-
aren 21ean, ortzegune-
an. Etxeko lore, bara-
tzeke landare eta fruitu
arboletan hain aditu eta
ikasiaz den gizona. Batez
ere, jendearen galde-
moduei erantzutera eto-
rriko da. Arratseko 7,30-
etan, Eskola Zaharretan.

Larunbatean, berri-
z, 23an, bertso saio bere-
zi eta interesgarria izan-
nen da. Berezia, hain
zuzen ere, herriko ber-
tsolari gazteek parte
hartuko dutelako. Be-
rezia, sei bertsolari gaz-
te ariko direlako, eta,
gazteak izanik ere, eza-
gunak eta dagoeneko
izen haundikoak dire-
lako. Arratsaldeko
8etan, Eskola Zaharret-
tan.



Sara-Etxalar topaketak

Gauza arrunta batzuen bidez aski giro alai eta goxoa bizitzea lortu zuten Sara eta Etxalarko gazteek herriko plazan. Afariak borobildu zuten besta.

Usategietan altxaferua bota zuten

Aurten ehiza denbo-
raldiak ondarreko urte-
etakoak baino aurpegia

hobea erakutsi izan be-
har du, mendi gainetan
jendea pozik ibili baita.
Altxaferuak bota zituz-
ten ehun dozenatara ai-
legatu zirela eta. Izan

ere, azken urteetan ez
baitzen maila hori ha-
rrapatzen. Dena den,
denboraldia bukatu bai-
no lehenagokoa da is-
torioa hau.

Arau subsidiarioak berrikusiko dira

Arau Subsidiarioak
deitutakoak onetsi zire-
nean, zortzi urteren bu-
ruan berrikustea ere
onetsi zuen Udalbatzak.
Heldu den urtean be-
tetzen direnez zortzi ur-
teak, Arau horiek ego-
kitzea erabaki du azken
bilkuran. Izan ere, urte
hauetan hainbat lege al-
datu dira, eta Gobernuak
hirigintza edo urbanis-
moa antolatzeke diru-
laguntzak ere berriki
erabaki ditu. Arau
Subsidiarioak berritte-
ko behar diren borts mil-
ioi pezetara hornitzeko
laguntza eskatuko dio
Udalbatzak Gobernuari.

Antsolokuetako

...karrikaren zola-lu-
zatze lanak Berako
Arkaitzari eman ditio
Udalak.

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



INAXIO JANARIDENDA

Igandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA



ETXALARKO
HERRIKO
OSTATUA

© 635290

Udazkeneko Menu berezia

Aza pastela odolkiiz betea
pikillo eta bertako ilar-saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko usoa
Oreim eskalopinak inasusta
saltsan
Gaztain pastela
Galcibar-94 ardoa, oqia eta kafea
2.900 Pta.

TOP CLASS ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Alan Leiper
ZUZENDARIA

ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.

ESKOLA LAGUNTZA
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK

Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak

LESKA • Biltzia Plaza 6, Behea • © 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

Aspaldiko partez, sei haur bataiatu zituzten igandean elizan

Igantziarrak izanen dira berriz ere Bortzirietako zabor bilketaz arduratuko direnak

OSKAR TXOPERENA

Besta haundia izan zen igandean Igantziko sei familierentzat, sei haur bataiatu zituzten eta. Azken urteotako datuak kontutan hartzen baditugu ez da batere kopuru txarra. Hauexek dira haurren izenak: Joseba Aldabe, Janire Loinaz, Mikel Agerre, Joseba Bertiz, Sara Maritxalar eta Maite Legasa. Ez dago batere gaizki.

Bortzirietako zabor bilketa

Angel M^a Irigoien eta Eduardo Migelena izanen dira berriz ere Bortzirietako zabor bilketaren arduradunak. hala erabaki zuten Mankomunitateko ordezkariak urriaren 8an Etxalarren egindako bi-



Igantzi jatetxea zabalik

Lan berriari ekin diote 'Igantzi' jatetxekoek urriaren azken egunaz geroztik. Argazkian ageri den bezala, herritar guziei egindako gonbidapenarekin hasi nahi izan zuten

Argazkia: OSKAR

leran. Urte berriarekin batera estreinatuko dute hiru urte iraunen duen kontratu berria. Bertze

hiru urtez ere luzatu ahal izanen dute Mankomunitateak hala erabakitzuten badu.

Kultur Egunak

Ezin izan genuen azkeneko alean Kultur Egun guzien berri eman.

Egun dexte pasatu direnez ez gara denak bat banaka aipatzen hasiko. Bertzerik gabe, bikain atera zirela erranen dugu, urtetik urtera indartzen doazela. Zerbait azpimarratzekotan, igandeko produktuen erakusketa eginen genuke. Lanak gosta izanen zaizkie zenbaitzuei hain gauza ederrak presatzen.

Herriarentzat lanean

Hiru hilabetetako kontratuarekin Herriko Etxearentzat ari da lanean Seroneko Jose M^a Zelaia. INEMen laguntzarekin hartu du Herriko Etxeak eta, zenbait lanetan ari ondokit, Eskolazaharreko teilatua moldatzen ari direnei laguntzen ari da orain.



J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA


JOSE AGERRE

PINTURA LANAK



- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

© 908. 97 93 06 • 637957 • IGANTZIKO BENTAK



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- | | |
|----------------------------|---------------|
| - Daniel Hechter | - Bonaventure |
| - Caramelo | - Replay |
| - Island | - Diesel |
| - Genfis | - Levi's |
| - Marithe François Girbaud | - Lacoste |

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

ARANTZA

Zortzi milioiko aurrekontua izanen dute herriko plaza moldatzeko lanek

Leitzako Azpiroz eta Saralegi enpresak egingen ditu

ELIXABET ETA GARBINE

Hemendik hilabete batetara hasiko dira herriko plazako moldatze lanak. Zortzi milioi pezetako aurrekontua dute eta horietatik sei milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu. Beraz, bi milioi ordaindu beharko ditu herriak. Lan hau, bertze lanak bezalaxe, Leitzako Azpiroz eta Saralegi enpresak egingen du.

Bertzalde, dagoeneko hasiak dira herri sarrerako bihurtzea zabaltzeko eta aparkalekua egiteko lanak. Leitzako enpresarekin batera Igantziko harrobia ari da lanean.

Imanol Iturria

...herriko intsumitua azaroaren 8an atxilotu zuen polizia nazionalak



Egin mus txapelketa

Azaroaren 1 eta 2an Egin mus txapelketa ospatu zen Ekaitza elkartearen. Hamaka bikote aurkeztu ziren. Santu Guzien egunean lehen kanporaketak jokatu ziren ligilla moduan eta larunbatean finalerdiak eta finala. Boni eta Juanek osatutako bikotea suertatu zen herriko txapeldun eta bigarrenak Kamino eta Mariano gelditu ziren.

Argazkia: Elixabet

kontrol batean. Ortzirale gaua kalabozo batean pasatu ondoren, larun-

bat goizean libratu zuten, Irungo epaitegian juizioa egiteko arazoak

baitzeuden. Orain bertze epaiketa baten esperoan dago.

flash

Gasaren

horniketa eta hedapena lanekin segituz, depositoaren kokalekua prestatzen ari dira. Orain arte Estrata-estuko galtzada berri dute eta badirudi herriraino doaien bidea ere galtzada moduan jarriko dutela.

Galtzanburu

etxean lapurrak sartu dira baina badirudi ez dutela balio haundiko gauzarik eraman.

Zakurrak hilik

Azaroaren hasieran zazpi-zortzi zakur agertu ziren hilik. Jendeak dioenez, zakurrak pozoinez hilak dira.



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximinak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakziak
Plareak	

'Abujardadon' Muzioa
Zabur antzekoa Txapirua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ALBERGIA
JATETXEA

634179
ARANTZA

XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

ARANTZA

Arantzako Arau Subsidiarioak aldatzeko hasierako onespina

Arantzako Udalak, 1996ko urriaren 10ean egindako bilkuran, UA-3 iharduketa unitatean, Felix Apezetxea Aizpurua jaunak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Espediente jendaurrean paratzen da hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontaturik, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Arantzán, mila bederatziehun eta laurogeita hamaseiko urriaren hogeita batean
Alkatea, Jose Ramon Amoros Oskoz

Karrika Nagusian aparkatutako ibilgailuei isunak jartzen hasiak dira

Bertzalde, pistak moldatzeko lehiaketa-enkantea egingen du Udalak

IXABEL ETA JOSUNE

Orain dela denbora bat, Herriko Etxeak Karrika Nagusian aparkatzen duten ibilgailuei txartel bat jartzea erabaki zuen. Bertan jakinarazten da ibilgailua gaizki aparkatua dagoela eta autoa uzteko baimenduak dauden lekuetara lehenbailehen mugitzeko.

Itxura batean, agindu hauei ez genien kasu haundirik egiten, jostan den asteartean goardiabilak pasatzerakoan kotxeak ikusi eta isunak jartzen hasi ziren arte. Badirudi Udalak ez duela inor abisatu isunak jartzen hasteko, baina argi dago hemendik aitzinera kontuz ibili beharko dugula. Sakelarengatik bertzerik ez bada ere.



Karrika Nagusian barna pasatzeko traba egiten dute errepidean aparkatutako ibilgailuek

Argazkia: Artxiboa

Pistak konpontzeko lehiaketa-enkantea egingen du Herriko Etxeak

Duela zenbait egun argitaratu zuten Arrutela, Juantxenekoborda eta Ordonbordako pistak konpondu nahi dituztela. Lan horiek en-

kante lehiaketaren bidez egingen ditu udalak. Interesatuak daudenak Udaletxeko iragarki taulan edo bulegoan jaso dezake informazioa.

Txirrindula eta lera-zakur laisterketa

Azaroaren 30 eta abenduaren 1ean txirrindula eta lera-zakur laisterketa burutuko da Sunbillako Nelize elkarteak antolatua.

flash

Antzakaitz kultur taldeko bilera

Larunbat honetan, azaroak 23, arratsaldeko 4etatik aitzinera burutuko da Antzakaitz kultur taldearen bilera. Bertan solastuko diren gaiak hauek izanen dira: Olentzero eguna, Errege Kalgata eta herriko argazkien bilketa.

Mus txapelketa Bustitzen

Bustitz ostatuak mus txapelketa azkarrari hasiera eman dio. Azken urteetan bezala, aurten ere igande arratsaldetan jokatuko da, 5etatik aitzinera.



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

KATTU

ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

© 627573 • LESAKA



© 948-451771

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

✎ DONEZTEBE

Hamabortzero mendira Erreka kirol elkartearekin

Inguruko ibilaldiak egiten ari dira momentuz

TXEMA ALDABE

Dagoeneko hiru ateraldi egin badute ere, datorren urteko ekaina hasiera bitarte hamabostero mendi ateraldiak egiteko intentzioa du Erreka kirol elkarteak. Irteera guziak igande goizekoak dira, hau da, egun erdikoak eta bazkaltzera etxera itzultzeko modukoak. Beraz, nahiz eta mendizale amorratuak ez izan denendako aukera bada. Orain arte eskualde inguruko ateraldiak egin dituzte.

Ateraldi hauetan parte hartzeko ez da sosik ordaindu behar, auto edo autobusarik ez bada hartzen. Kasu horretan, Errekako bazkide denak guttiago ordaintzen du. Izena emateko Titi Anaiak tabernara deitza aski da (450271), ateraldi egunaren aintzineko ortziralara baino lehen. Aurtengoarekin, hirugarren denboraldia da Erreka kirol elkarteak mendi ateraldiak antolatzen dituela.



Hogei eta berrogei lagun artean ateratzen dira hamabostero mendira Erreka elkarteak antolatutako ateraldietan

Zine denboraldiko pelikulen izenburuak ezagutarazi dira

Aintzineko alean, aurtengo zine denboraldia beranduago hasiko dela aipatu genuen. Oraingoan, ordea, ezagutza emanen dugu ikusi ahal izanen diren pelikulen izenak:

Abenduaren 6, 7 eta 8an 'Heat' emanen dute. Abenduaren 14 eta 15ean, 'Asesinos' iza-

nen da ikusgai. Abenduaren 21 eta 22an 'La Red'. Eguberri egunean 'Dos policías rebeldes' ikusteko aukera izanen da eta abenduaren 28 eta 29an 'Coacción a un jurado'.

Datorren urtea hasiteko, hilbeltzaren 4, 5 eta 6an 'Tin Cap' ikusi ahal izanen da; hil-

beltzaren 11 eta 12an, 'Tiempo de matar'; 18 eta 19an 'Lago Ness' eta 25 eta 26an 'Desperado'.

Otsaileko emanaldiei dagokienez, 1 eta 2an 'Caza legal' eskainiko dute; 8 eta 9an 'Sentido y sensibilidad'; 15 eta 16an 'El primer caballero' eta

22 eta 23an 'Libertarias', emanen diren pelikula guzietatik estatu espainolean ekoiztutako bakarra.

Aurtengo denboraldia akitzeko, 'Homicidio en primer grado' pelikula ikusi ahal izanen dute martxoaren 1 eta 2an zinera joaten direnak.

▼ flash

✦ Bazkalekuak hobetzeko

erretze teknikak erabiltzeko buruzko solasaldia emanen du Aurkidi elkarteak azaroaren 25ean, astelehena, arratseko 8etatik aitzinera Doneztebeko liburutegian.

✦ Diario Vasco txapelketako

bi pilota partidu jokatuko dira ortziral honetan, azaroak 22, eskolako frontoian. Larunbatean berriz, herri kirol saioa izanen omen da.

✦ Feria jendetsuak

izan dira aurtengoak. Hotz egiten bazuen ere, eguzkiak lagundu zuen.



ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE

SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO

IA 100 URTE
KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA
ESKEINIZ



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztiak karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 45 03 06



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal
sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

BERTIZ - MALERREKA

Ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak antolatu ditu Turismo Partzuergoak

Abenduaren lehena arte ehizi menu goxoak jateko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako hemezortzi jatetxe eskeinita, ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoak izanen dira abenduaren lehena bitarte. Jardunaldi hauek Bertizko Turismo Partzuergoak antolatu ditu zenbait erakunderen laguntzarekin eta antolatzaileen ustez, "gure gastronomiaren aberastasunak ehizan dauka aparteko adibidea, gure zonaldean ehiza eta gastronomia betidanik elkartuta daude ohiturazaharrei jarraituz".

Usoa, basurdea, oreina, erbia edo oilagorrrak toki garrantzitsua betetzen dute hemengo sukaldaritzan eta hori erakusten saiatzen ari dira 18 jatetxe horiek.

Jatetxeek 1.500 eta 3.500 pezeta artean dau den menuak eskeintzen dituzte (ardoa eta BEZ kanpo daudela), poltsiko guzientzat eskuragarriak izan daitezten.



Gure zonaldean ehiza eta gastronomia betidanik elkartuta egon dira, antolatzaileek adierazi dutenez

Artxiboa

Gazteluko ostatua berriro ere ideki dute

Bi urtez itxia egon ondoren berriz ere ideki da Gazteluko ostatua. Zarautzko Itziar Laburuk hartu du errentan 12 urterako.

Asteburuetan otorduak ematen ditu eta lehenik aipatuz gero, astez ere bai. Ostatuko goiko aldean logelak badira eta ahal bezain agudo ostatua ere eskeinita da. Bertako telefono zenbakia 450105 da.

Eskualdeko emaztekien pala txapelketaren finala larunbatean jokatu da

Larunbat honetan, azaroak 23, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera jokatu da Doneztebeko eskolako frontoian Baztan, Malerreka eta Bortzirietako emakumezkoen pala txapelketaren bigarren edizioaren finala.

Hau idazterakoan

ezin erran zein izanen diren finaleko protagonistak, asteburuan jokatzeakoak baitziren finalerdiak. Alde batetik, Begoña Taberna eta Beatriz Lizardi, joan den urteko txapeladunak Rosa eta Mari Jose Dagerre ahizpen aurka jokatu behar zuten.

Bertzetik, iazko bertze finalistak, Estitxu Pierola eta Maritxu Altzugarai, alegia, Edurne Argain eta Garbiñe Elizaintzinen kontra neurtu behar zituzten indarrak.

Hurrengo alean izanen duzue finaleko emaitzaren berri.



Iazko finalean parte hartu zutenak

barnek s.l.

Sukalde mobilen
fabrika

Zuzeneko salmenta

Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

ARIN
ASEGURUA

Era guzietako aseguroak preziorik onenean

autoak, kamioiak, etxe, istripu, bizitza, aurrezki...

Poliza bakoitza norberaren beharretara egokitzen dugu

Parrokia 21, Tel.-Fax: 450266 • DONEZTEBE

GOIZUETA

Patxi Iribarren eta Elena Oiartzabal omendu zituen Umore Onak

Dantza irakasleak izan dira hainbat urtetan

ESTEBAN AROZENA

Azaroaren 9an Umore Ona elkarteak antolatatu zuen atal edo sekzioen eguneko momenturik hunkigarrienak Patxi Iribarren eta Elena Oiartzabal omentzerakoan izan ziren, zalan-tzarik gabe.

Umore Ona dantza taldearen erakustailak izan dira Patxi eta Elena azken urteotan eta beraien ustez, erreleboa emateko garaia ailegatu zaienez, aipatutako egun berezi hori aukeratu zuten azken agurra emateko. Dantzariak berak eskainitako bertso eta aurrekuek gain, oparitxo bana jaso zuten festaren bi protagonistak elkartearen ize-nean.

Patxi eta Elenaren



Patxi eta Elenak ongi merezitako omenaldia jaso zuten

Arg.: Miren Terese

hutsunea zeinek beteko duen ere erabakia dago jadanik, Unai Miranda eta Elena Garcia senar-emazteak hasiak baitira dagoeneko lan horretan. Beraz, esku one-tan gelditzen da berriz

ere Umore Ona dantza taldea.

Begiraleak Eguberrietarako

Goizueta eta Arano-ko udalek hiru begirale behar dituzte Egu-

berrietako oporretan antolatuko den haurren aisialdirako. Guztira 18 ordu lan egin beharko dute hautatuek, ordu bakoitza 1.500 pezeta ordainduko delarik. Programazio bat aur-

keztuz izena emateko epea azaroaren 25ean betetzen da eta informazio gehiago behar duenak Udaletxean galdetu edo 610636 - 510310 telefonoetara dei dezake.



Idoia LEGARRETA

ARESO

Ikasturteko ingurugiro proiektua aurkeztu da

Eskolak eta Guraso Elkar-teak antolatua

JUANA M^a SAIZAR

Aurten ere ikastetxeak eta guraso elkar-teak ingurugiro proiektua aurkeztu dute, iazkoari segida emanez. 'Zuhaitza eta ura' da proiektuaren izenburua eta bi hamabostalditan aurrera eramanez. Udazkenean bertako mendietan hazia bilduko da. Bitartean minde-

giaren prestaketa, lurra aztertu eta ongarritu egingo da, udaberrian emaitzak lortzeko. Udaberrian, udazkenean landatutako hazien eta beste espezie batzuren azterketa zehatza, bi-deoz lagunduta. Helburua, ingurua eta erreka garbi edukitzea eta herri-tarren sentsibilizazioa da. Errekaren egoera az-

tertu ondoren, herriko-en laguntzaz errekaren garbiketa egingo da Leitzarango bokalerai-no, jasotako materialen estadistika egingez. Erreka garbituta fauna eta flora arakatuko dira. Ingurugiro sailak 155.000 ptako laguntza eman du.

Hiru begirale

Areso eta Leitzako



Eskolako haurrek 'Zuhaitza eta ura' ingurugiro proiektua garatuko dute

udalek hiru begirale behar dituzte eguberrietako oporretan antolatuko den haurren aisialdirako. Aisialdi tailer-rak bi asteoak izanen dira eta guztira 18 ordu egingen dira. Begiraleek 1.500 pezeta jasoko dute orduko.

Interesatuak, bi aste horietan tailerrak nola antolatuko lituzketen azaldu beharko dute, udaletxean izena ematekoan aurkeztuko duten programazioan. Izena emateko epea azaroaren 25ean bukatuko da (610636 - 510310).

Eskolan eroritako estalpea altxatzeko baimena eman du Gobernuak

'Txantreen' atzekaldean polikiroldegia egin daiteke

JOSEBA AZPIROZ

Hezkuntza saileko inbertsiontako arduradun eta teknikoek eta eskola eta udal ordezkariak egin berri duten bilera baten berri eman digute. Alde batetik, eroritako estalpea altxatzeko baimena eman eta dirulaguntza agindu dute. 'Agrikola' bezela ezagutzen den eraikiaren ondoan dauden estalpeak errebisatu eta egokitu ere eginen dituzte. Egin litekeen polikiroldegiarentzako ere leku berria proposatu dute: 'Txantreen' atzekaldea, eskolako eremuarekin bat eginez. Hau gauzatzeko jarrera ona eta interesa erakutsi dute baina, Gobernu berriaren murrizketa politika kontuan izanik, baina ote dago ilusio haundia egiterik? Udalarenak diren maisuen etxebizitzak eskolaren beharretarako behar omen dituzte. Bata bestearen truke emanen balitz? Hori omen da azkeneko proposamena.



Egin mus txapelketa

Bittor eta Mikel herritarrak izan dira Nafarroako Egin mus txapelketako irabazleak. Iruñeko finalera 125 bikote ailegatu ziren. Igande honetan jokatuko behar zuten Euskal Herriko finala Bilbon.

Argazkia: EGIN

UEMAren III. jardunaldiak azaroaren 30ean burutuko

Udalerri Euskalduen Mankomunitateak (UEMA) hirugarren jardunaldiak egingen ditu azaroaren 30ean, Leitzan. Jardunaldi hauek, batez ere udalerri euskaldunetako zinegotzi, udal langile eta herritarrei zuzenduta daude, baina parte hartu nahi

duen edonori irekiak. Hainbat solasaldi eskainiko dira goiz eta arratsalde. Izen-emateko Herriko Etxerako behar da azaroaren 28a baino lehen, horretarako 2.000 pezeta ordainduz (bazkaria barne). Gaur egun 29 herri dira UEMako partaide.

❖ **Herriko toki-izenak** ikasi edo erreparasatzeko lehiaketa bat antolatu dute Kultur Taldeak eta Euskara Batzordeak. Etxez etxe banatuko dituzte 5 mapa mutu: Leitzako etxeak; Erasote eta Gorritarango baserriak; Arkiskil, Sakulu eta Errekako baserriak; Leitzako mendi eta parajeak eta Leitzako errekek.

flash

❖ Gas sarea

Alde Zaharreko gasaren sarea Elizondoko Saskaitz enpresak egingen du, aurkeztutako hiru aurrekontuetatik onena izan baita; 2.549.930 pezeta. Abenduan hasiko dira lanak.

❖ Prozesionaria

Nafarroako Gobernuak Leitzalarrea, Okabio, Erasote eta Haritz mendietan dauden zenbait pinuditan 'prozesionaria' izeneko zomorroaren aurkako botikak zabalduko dituzte abioiez. Denerata 145 hektarea dira afektatuak.

❖ Sarriopapelek

badu pabilioia eraikitzeko udal baimena. Enpresak pabilioi bat eraikitzeko baimena eskatu zuen. Proiektuak Larbando futbol zelaia afektatzen du. Udalak zenbait proposamen aurkeztu zituen futbol zelaiaren zati bat libratzeko baina Sarriok ez ditu onartu. Beraz, terrenoa Sarri behartu arte emana zenez, bere esku-tara itzuli da, gaia askoren ahotan dago.



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305



Basa Kabi

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu
Eta ezkontzea pentsatu baduzu,
harrituko zaitugu!

Tel. 51 01 25 • Faxa: 61 09 65
LEITZAko Gaina

Elizatz

**ERLOJUTEGI
BITXITEGIA**

Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 **OIARTZUN**

*Nafarrentzat
prezio bereziak*

**muñeca
de Trapo**



Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

BAZTAN

Elizondon propano gasaren banaketa hiru depositotik egingen da

Balleko Etxeak uko egin ondotik, Repsol Butanok banatuko du

JOSEBA IGARABIDE

Repsol-Butano enpresak Elizondoko Bagordi, Paularena eta Saskaitz inguruetan propano gordailuak jarriko ditu eta Elizondoko hainbat etxebizitza, komertzio eta enpresa titiki propanoa zabalduko die. Nafarroako Gobernuak Industria, Komertzio eta Turismo sailari egindako eskaria onartu ezker. Baimena 75 urterako izanen zen.

Instalazioaren aurrekontua, biltegia, banaketa eta hartunea kontuan hartuz, 55,8 milioi pezetakoa izanen da eta lanak hiru urteko epean akituko lirateke, beti ere eskariaren arabera. Repsol-Butanoren erranetan 620 erabiltzaile izanen ditu sare berriak eta urtean 403.000 kilo propano gas kontsumituko direla kalkulatu du. Biltzeietan propano likidoa izanen da eta banatzeko arazoan gas egoeran egonen da.

Balleko Etxeak uko egin dio zerbitzu hau eskaintzeari baina proiektuari alegazio bat aurkeztu dio: Saskaitz inguruko biltegia lur azpian egitea eskatu du, zonako itxura estetikoa errespetatua izan dadin.



145 kiloko basurdea hil dute oronoztarrek

Esteban Arruti, Oronoz-Mugairiko Beti Mantso ehizi elkarteak 145 kiloko basurdea (117 kanalean) bota zuen azaroaren 3an Baztango mendietan. Hamalau laguneko koadrila eta sei ehizi zakur behar izan zituzten basurdea ehizatzeke eta, halere, nahiko lan.

Argazkia: Josu INZIARTE

Presen Lorenteren Margo erakusketa

Presen Lorente margolariaren pintura lanen erakusketa zabalik izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean azaroaren 15etik 28ra. Guztira, Iruñeko artista honen berrogeita hiru lan zintzilikatuko dira eta gehienak Baztango paisaiak eta bodegoiak azaltzen dituzte. Kultur Etxeko ateak ohiko ordutegian zabalduko dira.

Ehiztariak ehizi sasoinan buru-belarri sartuak daude oraindik

Baztan eta Erroko ehiztariak, oreina, basurde eta adarzabal edo gamoak ehizatzeke batidak egingen dituzte.

Oreinei dagokionez, 18 eme eta 18 ume ehizatzeke baimena dago. Basurde eta adarzabalak, berriz, ateratzen diren guztiak. 475.650 pezeta ordaindu behar du elkarteak eta ehiza

azaroaren 20tik urtarilaren 6ra burutuko da.

Bertzalde, erbiak eta konejoak astegunetan ehizatzea debekatu egin du Nafarroako Gobernuak. Azaroa eta abenduan igande eta besta egunez egin daiteke, hori bai, koadrila bakoitzeko erbi eta koneju bana.

flash

Oronoz-Mugairiko
mediku kontsulta hornitzeko 183.280 pezetako dirulaguntza jaso du Balleko Etxeak Osasunbidea-tik.

Telefono mugikorren
kobertura hobetzea eskatu dio Balleko Etxeak 'Telefónica Servicios Móviles, S.A.' enpresari. Udaren ustez, zerbitzua kaxkarra da, Elizondon batez ere eta kontuan hartu behar da larrialdi zerbitzu gehienek modu honetan funtzionatzen dutela.


Bazkalekuak hobetzeko
erretze teknikak erabiltzeari buruzko solasaldia emanen du Aurkidi elkarteak azaroaren 29an, orzitala, arratseko 8etatik aitzinera Arizkunenea Kultur Etxean.

Soldaduskara gateko
zozketa egin zen azaroaren 14ean. Hori dela eta Lanbide Eskolako ikasleak klaseak utzi zituzten eta manifestaldia egin zuten.

Bosniara laguntza
igortzeko kanpaina burutu du egunotan herriz herri Solidaridad Navarra Internacional erakudeak.

DANBORIENA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

☎ 453403 - ARIZKUN



SOULE

**GURUTZEAK
HILARRIAK**

☎ 453038 ARIZKUN • ☎ 123572 IRUÑA

BAZTAN

Zigatarrek San Andres eguna ospatuko dute Zigaurren

Loreei buruzko hitzaldi-erakusketa izanen da, bertzeak bertze

PABLO MENDIBURU

Azaroaren 30ean besta egingen dute zigatarrek Zigaurre auzoan. Goizean txistulariak ibiliko dira, ondotik Meza Zigaurreko San Andres ermitan. 11,30etan herriko dantzariak arituko dira "Fraileen larrairean". Saioa bukatzen denean mus txapelketa eta loreei buruzko hitzaldi-erakusketa izanen dira.

Arizkungo Esther lorendakoei neguan loreak nola zaindu, erramuak eta zentroak nola egin, barneko loreei buruz arituko dira. Bukatzeko, 3etan herri bazkaria eta akordeoien soinuak aditu ahal izanen dira.

Almandozko elizak 40 urte bete ditu

Igande honetan, Almandozko elizaren 40. urteurrena ospatzeko bazkaria egin zuten almandoztarrek Leku Eder etxean. Oroitarazi behar da eliza erre zenez, berria egin behar izan zutela.

Elizondoko etxe politenak

Errotazainenea, Iriartenea, Berroartea, Beitonea, Peruenea eta Herriko Etxea Txiki izen datu dituzte Elizondoko etxe politenak bezala. Epaimahaia alkateak eta kargodunek osatu zuten Santiotan.

Mariano Izetaren Baztango Hiztegia

Azaroaren 13an aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak Mariano Izetaren 'Baztango hiztegia' liburua. Guztira, 2.700 hitzek eta ballean erabiltzen diren erranirak bildu ditu Marianok.

Erratzuko kultur ekitaldi arrakastatsuak

Erratzuko Etxelebertzeko Txokoak antolatutako kultur ekitaldiak arrakastatsuak izan dira. Ekitaldi gehienetara jende aunitz gan zen, Papax Fagoaga antolatzailearen erranetan.



Ikastolako zaldikoaren zozketa

Elizondoko feria egunean Baztan ikastolak zaldiko eder hau zozketatu zuen. Zozketan ateratako dirua Ikastolak ikasturte honetan egingen dituen eskolaz kanpoko ekintzetarako erabiliko da. Saria egun berean atera zen eta ikastolako guraso batek, Mari Atxak, eraman zuen saritutako zaldikoa.

flash

Suteak egiteko baimena

Urriaren 1etik abenduaren 1a arte zabalik dago, larre erreteza egin behar dutenek baimena eskatzeko epea.

Iruritako pala txapelketa

Igande honetan hasi da Iruritako Aranabia pala motza txapelketaren laugarren edizioa.

Zaireko egoerari

buruzko solasaldia eman dute larunbat honetan Iruritan Maria Oteiza misiolariak eta Ramon Arozarenak.

Eman euskarari berea

kanpaina burutzen ari da Baztanen. Bertako euskararen egoeraren azterketa egin dute eta euskararen aldeko taldeekin kanpaina bat burutuko dute.

Jubilatuendako jardunaldiak

burutu dira joan den astean Oharritzen, Arkupeak elkartearen eskutik. Martxoak arrakastatsuak izan ziren, baina hauek ere ez dira giblean gelditu.

BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

URDAZUBI

Hasiak dira ttikien esku pilota entrenamenduak

Herrikoak Elizondo eta Ainhoarat gaten dira

ALIZIA OLAIZOLA

Baztango benjamin mailako esku pilota txapelketan herriko mutiko talde bat parte hartzen ari da eta hasiak dira entrenamenduak egiten. Denetara 220 lagun dira, Baztangoaz gain, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdikoak kontatuz. Azaroaren 3an, igande goizez bikote andana batek partida batzuk jokatu zituen herriko frontoian. Ainhoan ere, Ur-Hegiako frontoian izaten dira esku pilota txapelketak helduentzat eta benjamin mailakoentzat. Urdazubikoak ere parte hartzen dute.

Bi heriotza bederatzi egunetan

Bederatzi egunetan bi heriotz izan ditugu. Azaroaren 3an zendu zen Ustegabeako Pepita Organbide. Dendaria zen eta inguru hauetan aipatua. Azaroaren 12an berriz, Motzaneako Miguel Sagastibeltza zendu zen. 65 urte zituen ezkondurik Celestina andrearekin. Inguru hauetako bikote bakarra zen ezkondurik hainbertze urte zituena.



Ihizi sasoina

Ihizi sasoina badoa eta aurtien basurde aunitz hil dituzte. Orain oilagorren aldia izanen da. Argazkian ageri den bezala, Bazteretxeko Joxe Migelek ehizatutako batzuk

ZUGARRAMURDI

Bertso eta txiste afaria abenduaren 7an

'Atxuriatik Larrunerat' kanpainaren barnean

MARGARI ETA KORO

Abendua izanen da gure lurraldeko kultur hilabetea. 'Atxuritik Larrunerat' lemapean, Sara, Azkain, Bera eta Zugarramurdiko herrien artean hainbat ekintza antolatu dira. Zugarramurdiri dagokionez, haxe da gure herrian antolatu direnak:

Abenduaren 7an, larunbatez, bertso eta txiste afaria ospatuko da. Bertsolariak Unai Iturriaga eta Jon Sarasua izanen dira, eta txistekontalariak berriz,

Ugutx Robles eta Txomin Ezponda. Afaria Azketa jatetxean izanen da eta izena Ansalas ostatuan eman behar da abenduaren 1a baino lehen. Urruñako txaranga ere hor izanen da.

Abenduaren 14an, larunbatez, gaupasa izanen da pilotalekuan *Lau Behi*, *Tapia eta Leturia* eta *Irrintzina* taldeekin. Sarrera, 600 pezeta.

Dantxarineako errepedean obrak

Orain arte behin ere eginak ez ziren lanak egin dituzte Zugarra-

murditik Dantxarinera doaien errepedean: seinalizazio bertikala jarri (zutik dau den seinaleak). Egia erran, beharrezkoak ziren, nahiz eta 4 kilometro bertzerik ez izan, nahiko arriskutsuak dira. Gainera, kontuan hartu behar da, ingurukoek azkeneko zilotxoak eta guzti ezagutzen badituzte ere, errepede honetan kanpotar aunitz ibiltzen dela, zir-



Tapia eta Leturia taldea arituko da herrian abenduaren 14ko gaupasan

kulazio haundia jasaten duela. Hala ere, ez zai- gu nahikoa iduritzen eta

errepedearen zabaltze- ari esperatzen segituko dugu.

SARA

'Axuriatik Larrunerat': ekitaldiz betetako kultur hilabetea

Azkaingo Altxa Lili, Zugarramurdiko Ake-larre, Berako Gure Txo-koa eta Sarako Etxola elkartek antolatutako 'Axuriatik Larrunerat' kultur hilabetearen bar-nean zombait ekitaldi bu-rutuko dira Saran, joan den ortziralean Gazte-tean egindako prent-saurrekoan aditzera eman zenez.

Abenduaren 1ean, igandez, arratsaldeko 4etan kantaldia izanen da kiroldegian. Lehenik, Jojo eta Ramuntxo tal-dea arituko da. Ondotik, Josu Goia, Berako abes-laria arituko da, Berako musika eskolako musi-kariek lagundurik. Az-

kenik, Amaia Zubiria, Maite Idirin eta Pascal Gaigne arituko dira. Sartzea 30 libera gos-tako da.

Abenduaren 22an, igandez, arratsaldeko 4etan Omordia (VVF) salan literatur lehiake-tan sariztatuek beren la-nak aurkeztuko dituzte eta sariak emanen zaiz-kie. Mendiari buruzko lehiaketa hau lau he-rrietako eskolei propo-satu izan zaie. Ondoren, Koldo Amestoy konda-lariak *Urdinola* bere az-ken sorkuntza aurkez-tuko du. Sartzea 20 li-bera gostako da, 10 li-bera haur, ikasle eta lan-gabezian direnentzat.

Santa Katalina

Saindu hau Olhalde auzoko Santa Katalina kaperan ohoratua izan-nen da azaroaren 24ean. Ohidura den bezala, 23 eta 24ean Baratxartea jatetxean Santa Katalina kari tripotxa jateko pa-rada ukanen duzue. Be-hira lekuak aintzinetik.

Ahate jatea

Azaroaren 10ean hamabortz bat lagun bildu ziren Lastiry jatetxean Sarako bes-tetan Ahate jokoan erabili ahateen jateko.



Saiberri taldeak bere lehen dizka plazaratu du

Bederatzi saratarrek osatzen dute taldea

MIXEL ETA JACQUELINE

Udazken huntan be-deratzi mutilez osatu 'Saiberri' saratar kan-tari taldeak *Eraiki* ize-neko dizka grabatu du. Lau urtez lanean aritu

eta, ez zezaken ondo-rio hobeagorik ames-tu. Dizka huntan ha-meka kantu agertzen dira, gehienak berriak eta taldeak ekoiztuak.

Garatuak diren gaiak Euskal Herria eta

euskarari lotuak dira. Interesatuak direnek aurki dezakete oraitik goiti diska konpaktoa ala K7-a leku askotan eta Sarari doakionez saltegi eta ostatu gehie-tetan.



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA



FAGOR
sukalde altzarietan
ESKAINTZARIK
INDARTSUENA
DESKONTUA (%20)
+
Ciclon Plus-a **OPARIA**

FAGOR

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



Albistur, 39-K
627542
LESAKA

• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

EZKONTZAK

Miguel M^a Mitxelena Zelaieta eta **M^a Pilar Irigoien Zelaieta**, Sunbilla eta Zigakoa, azaroaren 2an.

Enrique Redondo Cascante eta **M^a Jose Ibarra Berasain**, Madril eta Leitzakoa, urriaren 26an.

Jorge Alberto Iribarren Arretxea eta **M^a Victoria Gonzalez Etxepare**, Doneztebe eta Lesakakoa, urriaren 26an.
Carmelo Iturria Altzugarai eta **M^a Jesus Altzuguren Pikabea**, Lesaka eta Berakoa, urriaren 26an.

Koldo Bengoetxea Alzaga eta **Belen Zubieta Manterola**, Irun eta Lesakakoa, azaroaren 9an.

JAIoTZAK

Nekane Etxebere Fernandez, Amaiurkoa, urriaren 27an.

Amaia Zaldain Iraizoz, Elizondokoa, urriaren 29an.

Ainhoa Garziarena Hualde, Doneztebekoa, azaroaren 10ean.

Irati Lazkano Alkaraz, Leitzakoa, urriaren 31n.

Hasier Zabala Ieregi, Leitzakoa, urriaren 29an.

Ganix Mixelena Jurio, Sarakoa, urriaren 27an.

Maite Legasa Taberna, Igantzikoa, azaroaren 10ean.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
polit bat oparitzen diegu. Amendako
"Está creciendo" liburua daukagu.

IRUÑEKO KUTXA
Foro Uda Aterbi Kuria

HERIOTZAK

Lázaro Salaberria Salaberria, Goizuetakoa, azaroaren 6an, 63 urte.

Adelaida Apeztegia Dendarieta, Amaiurkoa, urriaren 26an, 92 urte.

Bartolomé Dagerre Etxandi, Elizondokoa, urriaren 28an, 91 urte.

Isabel Aritzia Dufurrena, Iruritakoa, urriaren 29an, 96 urte.

Serafin Lucas Leonardo, Erratzun, urriaren 29an, 96 urte.

Martin Barrenetxe Bergara, Zozaiakoa, azaroaren 4ean, 86 urte.

Prudencio Eusebio Ballarena Goñi, Elizondokoa, azaroaren 5ean, 69 urte.

Micaela Goikotxea Indakoetxea, Ezkurakoa, azaroaren 6an, 89 urte.

Kattalin Mariluz Iramuno, Sarakoa, azaroaren 1ean, 82 urte.

M^a Josefa Leitza Urrutia, Lesakakoa, urriaren 27an, 80 urte.

Francisco Legarreta Aiora, Iturengoa, urriaren 29an, 74 urte.

M^a Concepción Urtxegi Etxebeste, Berakoa, azaroaren 12an, 59 urte.

Pilar Gallano Churrut, Berakoa, azaroaren 3an, 78 urte.

France Victoire Crevecoeur, Beran, azaroaren 12an, 82 urte.

Josefa Organbide Gurrutxaga, Urdazubikoa, azaroaren 3an, 75 urte.

Miguel Sagastibeltza Zabaleta, Urdazubikoa, azaroaren 12an, 86 urte.

ETXANIZ

Juan Arana 1 eta 3
Tel. eta Faxe: (943) 61 17 67
20302 IRUN

Ez bakarrik saldu, zure bainua berritzeko edo
apaintzeko behar duzun guziaz kolokatu ere bai:

- ▶ SANITARIOAK
- ▶ GRIFERIAK
- ▶ MUEBLEAK
- ▶ MANPARAK
- ▶ PREZIO GUZITAKO OSAGARRIAK

ITURGINTZA LANAK EGITEN DITUGU

'Atxuriatik Larrunerat'

Abenduko arrats hotzak goxatzeko aktibitate andana prestatu dituzte Azkaine, Bera, Sara eta Zugarramurdin

Azkaingo Altxa Lili, Bera-ko Gure Txokoa, Sara-ko Gaztetxea eta Zugarramurdiko Akelarre elkarteak bat egin dute kultur hilabetea antolatze-ko. Iaz hartutako bideari jarraikiz, aurtengoa-reakin bigarren urtea da mugaz bi aldeetako herriak elgarretaratzen di-rela, baina iazkoarekin konparatuz, aurten talde bat gehiago dute antolatze lanetan; Berako Gure Txokoa elkarte.

Kultur hilabetea gorpuzte-ko hautatu duten gaiak, lau herrien artean amankomunean du-ten ondasunari egin dio erreferentzia; mendiari, alegia. Eta horrexegatik hartu dute izenburutzat *Atxuriatik Larrunerat*. Atxuria da Zugarramurdi-tik abiatzean dagoen lehenbi-ziko mendia eta Larrun azke-nekoa Azkainerat ailegatzera-koan.

Orain arte izan duten espe-rientziari erreparatuz, «gure

esku-
programa
TTIPI-TTAPA
honekin
batera
izanen
duzu



kultura eta hizkuntza ahal ditugun forma ugarienen bitartez bultzatzeko» gogo bizia agertu dute antolatzaileek.

Izan ere, joan den urteko edizioak izigarritzko arrakasta eskuratu zuen, ekitaldien kalitatea arras ona izan zen eta jendeak ere biziki ongi erantzun zuen.

Azaro hondarretik eguberriak bitarte

Heldu den ortziralean hasi eta abenduaren 29a bitarte ez dago aspertzeko aitzakirik.

Ikus-lego zabal bati egokitzeko, mintzaldiak, filmeak, kontzertuak, mahainguruak, antzerki emanaldiak, bertso eta txiste afariak... gaitzeko aktibitate multzoa dago prestatu-rik nahi duenak euskal kultur-
an eta bere hizkuntzan murgiltzeko.

Aktibitate horiek guzien antolatzeko, mugaz bi aldeetako administrazio publikoen diru-laguntza ukan dute aurten ere.

Bortzirietako Bertso Eskolaren astea Etxalar eta Lesakan

Bortzirietako Bertso Eskolak Bertso Astea antolatu du Euskara Man-komunidadearen la-guntzaz. Larunbat honetan, azaroak 23, arratseko 8etan gazteen bertso saioa izanen da Etxalarko Eskola Zaharretan. Etxalarko Bertso Eskolako gai jartzaile-aren erranetara, Jexux-mari Irazu, Erika Lagoma, Iñigo Olaetxea, Maddalen Lujanbio, Xabier Silveira eta Unai Iturriaga arituko dira bertso kantari. Ekitaldi honek Altxata Kultur Elkartearen laguntza izanen du.

Azaroaren 30ean, Bortzirietako eta Oiartzun-go Bertso Eskolek saioa eskainiko dute Lesaka-ko Herriko Etxeko pleno aretoan arratsaldeko 6etan. Ondoren bertso-paper lehiaketaren sariak banatu eta bertso zaharrak kantatuko dira. Gaueko 9etan, ber-
rri, bertso-afaria izanen da Arrano elkartean. Adineko bertsolariei txanda emanez, Bautista Madariaga, Luis Olaetxea eta Juanito Perurena arituko dira bertso-
totan.

BORTZIRI

UNSION ANAIK

SUKALDE ALTZARIAK



Erakusketa: BERAU ETXEA © 637266 • LESAKA

koxkonta



Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

DATUAK.....

1 Juantxo Apezetxea duela 25 urte sortu zen Goizuetan.

2 Estatuko pilotari afizionatu onenaren saria eskuratu berria du Lizarran.

3 Momentu honetan Goizuetako Herriko Etxearentzat ari da lanean.

4 Etxea kopa eta txapelez betea badu ere, sari guziek ilusioa egiten diote.

5 Espainiako klub arteko txapelketan parte hartzen ari da gaur egun herriko Umore Ona elkartearen izenean, final erdirako txartel baten bila.

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
ARTXIBOKOA


Juantxo APEZETXEA Goizuetako pilotari afizionatua

"Profesionaletara saltoa emateko prestatua ikusten dut nere burua"

Espainiako Federazioak joan den urteko estatuko pilotari afizionatu onenari emandako saria izan da Juantxo Apezetxeak etxeratu duen azkena. Zortzi urterekin hasi zen pilotan eta geroztik ez da gelditu. Kopa eta txapel artean, zenbait garaipen bereziki gogoratzen ditu. "Burlatako Retegi saria askotan, munduko txapeldun banaka sub-22 mailan, 1994an munduko txapeldun Iparraldean eta joan den urtean munduko koparen txapeldun izan nintzen. Hau izan da ilusio gehien egin didan saria, neonek irabazi bainuen. Iparraldeko txapelketan, ordea, ez nuen finala jokatu". Hainbeste urtetan momentu txarragoak ere izan ditu, noski. "1992an Errege koparen finala Agirraren kontra Labriten jokatu nuenekoa. Finalerditan Lasari irabazi nion baina eskua izorratu nuen, kalloa ireki zitzaidan. Ez nuen horrenbesterako zenik uste eta finala jokatu nuen, baina ikaragarri gaizki. Partidua telebisiotan eman zuten, gainera".

PROFESIONALETARA IGOTZEKO PREST

Afizionatu mailan irabazten ahal den gehiena irabazi ondotik



«Herri arteko txapelketarako fitxajeak egitea ez litzaidake gustatuko»

profesionaletara pasatzeko tentazioa ere badu Juantxok. "Probartzeko gogoia badut baina hori enpresak esan behardu. Lehenago igotzen ez nintzen prestatua, parejatan tantoa bukatzen jakitea falta zitzaidan. Azkeneko urteotan dextente ikasi dut:

aire eta gantxo pixkoba falta zait, baina nahiko ongi ibiltzeko jarria nagoela uste dut".

Bitartean, afizionatutan partiduz partidu ari da, edozein jaialditan ikuskizuna emateko gaita baita goizuetarra. "Udan herriko festak direla eta asko ibiltzen gara, baina negu partean, Bizkaian batez ere, torneo asko jokatzen dira. Urte guzian nahikoa jokatzeak aukera izaten da, lehen baino banatuagoa dago". Nafa-

roako Herri arteko txapelketan azpitxapeldun izan dira aurtengo goizuetarrak, baina zaila ikusten du gaur egun jokatzen den moduan txapela eskuratzea. "Oberena eta Lizarra bezalako taldeek inguruko pilotari guziak hartzen dituzte eta potentzia hartzen dute. Gu herrikoekin bakarrik juxtu-juxtu ibiltzen gara, baina ez litzaidake gustatuko fitxajeak egitea. Herrikoekin gero zaila izanen zen Goizue-

► "Atzera herrika jokatuz gero, zaila izanen zen Nafarroako Herri arteko txapelketa Goizuetari kentzea. Orain, berriz, juxtu ibiltzen gara Oberena edo Lizarra bezalako taldeekin"

BOITE prenton

❖ Behobia-Donostia laisterketa

Azaroaren 10ean burutu zen eta eskualdeko ordezkaritza zabala izan genuen, 10.000 laisterkalarien artean. Rafael Maritxalar lesakarra izan zen azkarrena, 15. postuan bukatu baitzuen proba. Nafarroatik 600 lagun joan omen ziren proban parte hartzera.

❖ Aldaketak Osasuna futbol taldean

Iruñeko Osasuna futbol talde nagusiko Benitez entrenatzailea bidali ondorengatik Pedro Mari Zabalza hartu dute orain. Honek, Jose Manuel Etxeberria goizuetarra hartu du laguntzaile bezala. Osasunas Promesas taldean berriz, Iñaki Perurena leitzarra (joan den urtera arte Aurrerako entrenatzailea) izanen da Martin Monreal entrenatzailearen laguntzailea.

❖ Juan Carlos Garro

txirrindulari berritarrak indarrez hasi du neguko denboraldia. Muskizko V. San Martin sarian aisa nagusitu zen, 36 kilometroko ibilbidean hiru minutuko abantaila ateratzen baitzuen bigarren sailkatuari eta zazpi hirugarrenari. Lehen itzulian egin ordutako minutuko alde ateratzen zuen.

Leitzako Aurrera, uste gabeko liderra Nafarroako Preferente mailan

Dagoeneko hamar jardunaldi jokatu direnean Nafarroako Preferente futbol ligako uste gabeko liderra dugu Leitzako Aurrera taldea. Kaparrosoko Azkarre-

na taldeak bezala 21 puntu ditu Aurrerak baina golen alde hobe du. Preferentera igo berria izan arren ederki hasi du denboraldia Angel Ablanedoren taldeak.



Pentsio Planak

ETORKIZUNA SEGURTATU

DESGRABATU

Rural

Kutxa rekin

Oraintxe da DESGRABATZEko momentua, ETORKIZUNA SEGURTATZEN duzun bitartean. Nafarroako Rural Kutxa bere Pentsio eta Jubilazio Planak eskaintzen

dizkizu, desgrabazio fiskal altuena eskaintzen dizkizun produktuak, alegia. Zatoz Rural Kutxara. Zure beharretara egokitzen diren soluzioak eskainiko dizkizugu.



NAFARROAKO RURAL KUTXA

AGENDA EGUNEZ EGUN

JARDUNALDIAK

LEITZA

► Azaroaren 30ean

UEMA (Udal Euskaldunen Mankomunitateak) III. Jardunaldiak egingen ditu Leitzaan. Goiz eta arratsaldean udal euskaldunetan intereseak diren hainbat gai jorratuko dituzte. Interesatua egonez gero matrikula 2.000 Pta.ko matrikula ordaindu behar da (bazkaria barne). Tfnoak.: 510310 - 610636.

KULTUR EKITALDIAK

LESAKA

► Azaroaren 24an

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailasoak arratsaldeko 5etan Pilotalekuan.

► Azaroaren 29an

arratsateko 7,30etan Beti Gazte elkartearen 'Bertsolaritza eta Telebista' mahaingurua.

► Abenduaren 3an

arratsateko 7,30etan Matxinbeltzanean, 'Igurtzi nazazu berriro laztana' poema erotikoen errezitaldia.

KONTZERTUAK

LESAKA

► Azaroaren 23an

Elizan, gaueko 10-etan, Amaia Zubiria.

ZINEA

BERA

► Azaroaren 24an

Kultur Etxean, 'Lago Ness'.

► Abenduaren 1ean

'Jumanji'.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 5.700 pta.
- Zerri gizona (95-100): 177 pta./kilo
- Zerramak: 125-130 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
 - Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 500 |
| 2.koa | 470 |

- Urruxak: Pzta/kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 540 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

• Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 16.000 eta idixkoak 24.000 Pta.

Mestizoak: urruxak 24.000 eta idixkoak 36.000 Pta.

Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.


DATU ITURRIAK: EHNE

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

*Ehizari buruzko
Jardunaldi
Gastromikoak
Bertizko
Partzuergo
Turistikoak
antolatuta*

Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 18 jatetxe parte hartzen ari dira jardunaldi hauetan, eta idea gustokoa baldin baduzu, abenduaren lehena bitartean baduzu oraindik «gure gastronomiaren aberastasunak» dastatzeko aukerarik. Usoa, basurdea, oreina, erbia edo oilagorrekarekin prestatutako plater goxoak eskainiko dituztela iragarria dute. Horretarako, menu desberdinak egonen dira aukeratzeko moduan, 1.500 eta 3.500 pezeta bitarteko prezioetan (ardoa eta BEZa kanpo).

**Ehiza sasoiko
plater goxoak
dastatzeko aukera
dago eskualdeko
jateetxeetan**



EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

PIKABEA

pinturak

Molinero drogerian
galdetu

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

JAKIN BEHARREKOAK

Larre-erretzeen kalteak eta bazkalekuak hobetzeko teknikak


Aurkidi elkarteak mintzaldiak antolatu ditu hurrengo egunotarako Donezteben, Elizondon eta Lesakan izenburuan aipatu den gaiarekin. Aldizkari honetan bertan, herriz-herriko kroniketan aurkituko dituzu egun eta tokiari buruzko xehetasunak.

Larre-erretzea debekaturik dago

Egoera berezietan, ordea, Administrazioak baimenak ematen ditu, erretzeak bere kontrolpean egin ahal izateko.

Baimenak Herriko Etxetan eskatu behar dira eta han eskatuko dizkiote interesatuari zenbait xehetasun baimena tramitatze-ko.

Dena dela, baimen horiek bi edo hiru hilabete lehenagotik eskatu behar dira eta egun batzutako balioa izaten dute. Eguraldia de-



Mintzaldiak izanen dira Elizondon, Donezteben eta Lesakan

la-eta ezin izanen balitz lar-
reri erre, baimenaren lu-
zapena eskatzen ahal da.

Mintzaldietako gaiak

Orain arte aipatutako guz-
tiz eta larreak hobetzeko
dauden teknika alternati-
boetaz ere mintzatuko di-
ra bilera hoietan. Hala ere,
Aurkidi Elkarteak aholku
batzuk aurreratzen ditu
zentzu horretan:

- Maldak aukera ematen

badu, traktorearekin sa-
siak ateri eta gero, erein
baino lehen, kisua bota.

- Malda haundiko paraje-
tan, sasiak eskuz moztea,
mukulutan erre eta gero
kisua bota eta erein.

Larreak erre gabe pasa-
tzeko aipatu diren bi al-
ternatiba horiek ez badu-
te balio, Administrazioak
jarritako baldintzak bete
kontrolpeko larre-erretzea
eginen da.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

DONEZTEBE

► **Azaroaren 18tik
abenduarien 3ra** Bi-
dasoako Trenari buruz-
ko erakusketa Zinean.

ELIZONDO

► **Azaroaren 15etik
28ra** Presen Lorente
margolariaren lanak
ikusgai egonen dira
Arizkunenean.

MENDI IRTEERAK

BAZTAN

► **Azaroaren 24an**

Sorgiñen ibilbidea
eginen dute Baztango
Mendigoizaleek: Eski-
saroil-Iturruaga-Altig-Sa-
rako lezeak-Zugarra-
murdi-Harritxuri-Eskisa-
roi.

► **Abenduaren 1ean**

Baztango Mendigoiz-
aleak Iñarbilgo zirko-
ra joanen dira: Ariz-
kun-Basabar-Dolmen-
Lamin Pizarra-Iñarbil-
Xorroxin-Gorostapalo-
Arizkun.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnoa. deitu behar da

► **Azaroaren 18tik
24ra** Arantza, Nar-
barte, Elizondo (Le-
zaun), Urdazubi, Lei-
tza eta Goizueta.

► **Azaroaren 25etik
abenduarien 1era**
Igantzi, Doneztebe,
Elizondo (Iturralde) eta
Goizueta.

► **Abenduaren 2tik
8ra** Bera, Sunbilla,
Elizondo (Lezaun) eta
Goizueta.

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitze
- ✓ Zaharberritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako
aholkularitza-zerbitzua
hirigintza lanetan

BIDASOA

arkitektura bulegoa

Bititria, 3 • ☎ 637503 • LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

ttipi-ttapa

6.300 harpidedun
22.000 irakurle

HIGIEZINAK SALTZEKO

- 101. Etxeak
- 102. Etxebizitzak
- 103. Baserriak
- 104. Txaleak
- 105. Apartamentuak
- 106. Merkataritza-lokalak
- 107. Garajeak
- 108. Lurrak/orubeak

HIGIEZINAK EROSTEKO

- 111. Etxeak
- 112. Etxebizitzak
- 113. Baserriak
- 114. Txaleak
- 115. Apartamentuak
- 116. Merkataritza-lokalak
- 117. Garajeak
- 118. Lurrak/orubeak

ESKUALDATZEAK

- 121. Merkataritza-lokalak
- 122. Bertzelakoak
- 131. Etxeak

zein erraza den
zure anuntzioa
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-
Iparraldetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazioa eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ERRENTAN HARTZEKO

- 132. Etxebizitzak
- 133. Baserriak
- 134. Merkataritza-lokalak
- 135. Lurrak/orubeak
- 136. Bertzelakoak
- 141. Etxeak

ERRENTAN EMATEKO

- 142. Etxebizitzak

- 143. Baserriak
- 144. Merkataritza-lokalak
- 145. Lurrak/orubeak
- 146. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak

- 206. Osasun arlokoak
- 207. Mendi lanak
- 208. Gestoriak
- 209. Garraioak
- 210. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Saldu
- 502. Erosi
- 503. Tailerrak
- 504. Bertzelakoak

ANIMALIAK

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Eman
- 604. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu/aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak
- 802. Deialdiak

HIGIEZINAK SALTZEKO

102 ETXEBIZITZAK

ELIZONDO. Txokoto au-
zoan pisua salgai. ☎
580712. Arratsetan.

BERA. 96m² ko pisua eta
34m² ko bajera salgai. Pre-
zioaz solastuko dugu. ☎
630686. Arratsetan.

ETXALAR. Pisua salgai. 3
logela, sukaldea, egonge-
la, bainua eta trasteroa. De-
nak kanpoaldera ematen
du eta bizitzera sartzeko
moduan. ☎ 635146.

HIGIEZINAK SALTZEKO

103 BASERRIAK

DONAMARIA. Baserria
salgai, sotoa, lehen solai-
rria (etxebizitza) eta gan-
bara. Borda ttiki bat badu
berari itxekia eta larraina
atarian. 150 m². Bengoe-
txeako Borda. ☎ 510540.

HIGIEZINAK SALTZEKO

107 GARAJEAK

BERA. 19m² ko bajera sal-
gai. Burga Plazan.
1.900.000 Pta. ☎ 630155.

HIGIEZINAK EROSTEKO

112 BASERRIAK

BAZTAN. Baserri edo bor-
da erosi edo errentan har-
tuko nuke. ☎ 989.483290.

MALERREKA. Borda bat
erosiko nuke bere terreno-
arekin. ☎ 451774. Arratse-
tan.

ESKUALDATZEAK

121 MERKATARITZA-LOKALAK

ORONÓZ-MUGAIRI. Os-
korri denda eskualdatu edo
traspasatu nahi da. ☎
592245.

ERRENTAN HARTZEKO

133 BASERRIAK

BAZTAN-BIDASOAN. Ba-
serri edo etxea hartuko ge-
nuko errentan hiru lagun
arte, zeramika tailerre-
an lan egiteko. ☎ 256241.

ERRENTAN EMATEKO

142 ETXEBIZITZAK

ELIZONDO. Pisu bat erren-
tan emanen nuke. ☎
580484.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

zimeldi

Pareta armarioak eta bereizte
manparak ate irristatzailerekin
Obrarik gabe!!

Zimeldi • ETXALAR
☎ 948-387017

ZERBITZUAK


210 BERTZELAKOAK

M^{rs} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK

Lar neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

ttipi-ttapa
1998ko azaroa 4 - 1999ko azaroa 4



Bidali TTAPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo famiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar
dira. Eskatu informazioa.

☎ **631188**

Kartelak, buzoiratzeko pa-
perak, bisita txartelak, Fak-
tura taloiak... egiten ditu-
gu. ☎ 631188. Bulego or-
duetan.

LANA

301 ESKARIAK

Neska batek lan egiten lu-
ke goizez Baztan-Malerre-

ka aldean. Esperientzia dut haurrekin eta etxeko lanean ☎ 581265.

Neska gazte batek lan eginen luke gauzez edo aste-buruetan. Haur edo adinekoak zaintzen, jatetxe-sukaldetan laguntzen.... ☎ 580540.

Kamioi-txofer lanean arituko nintzateke. ☎ 580540.

LANA

301 ESKARIAK

Emakume bat behar du gu etxeko lanak egiteko. Iruñean. Jorنال ona. ☎ 225945 (Teresa). Deitu arratsalde-tan.

IRUÑEA. Neska bat behar da pisua osatzeko unibertsitatearen ondoan. ☎ 241369 (eguerditan edo gaueko 9etatik aitzinera).

MOTORRA

501 SALDU

Ford Fiesta salgai, NA-S matrikuladuna. ☎ 631343 (Betatik aitzinera).

Renault 19 RTI 1.8 salgai, NA-AH matrikula eta 35.000 kilometro eginak. Lagunduriko direkzioa eta bertzelako osagarriekin. ☎ 630766 (Jose M^a).

Montesa Cota 310 trialeko motoa salgai, oso ona. ☎ 514118.

MOTORRA

503 TAILERRAK

AUDI SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak salgai. Ford Fiesta XR2, Suzuki luzea, Opel Corsa D, Renault Express, 2 Opel Kadet, Peugeot 205.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzuki Vitara laburrak eta luzeak, Ford Escort eta Peugeot 205. Tapizeriak garbitzen ditugu.

GANIX Tailerrak

Iruñandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

22.000
pertsonek
ikusiko dute
zure anuntzioa
hemen jartzen
baduzu

☎ 63 11 88

ANIMALIAK

601 SALDU

Zortzi urteko astoa bere umearekin salgai. Lanean ibilia. ☎ 450907.

30 ardi gazte beraien dretxoekin salgai. Karrantzako mutur-gorri arrazakoak. Azaroaren 20 aldera umatu beharrak dira. ☎ (94) 4638215 - 6809000.

Husky Siberiar xakurkumeak salgai, gurasoak laisterka ibiltzen direnak dira. ☎ 450826 edo 908.777621. (Vidal).

6 urteko mando zikiratua salgai. ☎ (94) 4638215 - 6809000.

Ahuntz emari aitzindua salgai. ☎ 637772. Eguerditan.

Zerrama gaztea salgai. ☎ 634093.

Ardi txakurrak salgai. ☎ 604624.

Ahari muturgorria salgai, 3 urte. Arantzan. ☎ 634170.



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldekoa.
- Etxe zoragarria salgai.
- Azken duplex berri-berria salgai. AUKERA
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

LESAGA.

- 60 m²ko bajera salgai. Arras prestatua. AUKERA
- Ardotegia salgai.
- Etxe elkarri atxikiak salgai. Familiabakarrekoak.

ETXALAR.

- Pisu bat errentan emateko.
- Baserria salgai herriatik 2 km. tara.

ZIGA (ZIGAUERE).

- Etxea salgai, 15.000m²ko lur eremuarekin.

IRURITA.

- 140 m²ko etxebizitza salgai, 400m²ko lur eremua.
- 350 m²ko etxebizitza salgai, 200m²ko lur eremua.

ELIZONDO.

- Pisu merke bat salgai.
- Pisu berri bat salgai.
- 400 m²ko bajera bat eta bertze batzuk salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

ORONÓZ-MUGAIRI.

- Nabe-pabilioiak salgai.
- Kanpoaldeko pisua salgai. Arras ongi dago.
- Oskorri liburudenda salgai. AUKERA

LEGASA.

- Pisu salgai. AUKERA

NARBARTE.

- Pisu handi bat errentan emateko prest.
- Pisu berria salgai. AUKERA

DONAMARIA (IGURIN).

- Txaleta salgai.

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Pisu batzuk salgai.

Modu askotako kontratuak egiten ditugu eta baita lege-arazoak konpondu ere. Badugu abokatua. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653 • Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

- Ostatu bat errentan emateko prest.
- Baserri bat errentan emateko prest.

ELGORRIAGA.

- Pisu eder eta berria salgai.
- Familia batendako etxea errentan emateko prest.
- Etxe polit bat salgai edo pisu batekin trukatu.
- 3.600 m²ko eremua salgai.
- Familia batendako etxea salgai.

ITUREN.

- Etxea eder bat bere lur eremuarekin salgai.

ZUBIETA.

- Pisu berri batzuk salgai. Finantziario berezia dute

ERATSUN.

- Baserria salgai.

ARESO.

- Baserria salgai.
- 5.000m²ko lur eremua salgai.

BETELU.

- Baserria salgai.

BERASTEGI.

- Txaleta salgai.

PREMIAZKOAK (EROSTEKO)

- Beran edo Lesakan baserri edo etxea.
- Zugarramurdi, Udazubi edo Etxalarren

AUKERAK

- Zubietako pisuak 8.250.000 Pta.
- Berako duplexa.
- Legasako pisua 7.000.000 Pta. negoziag.
- NARBARTeko pisua
- Igurineko txaleta
- Elizondoko unifamiliar eta bifamiliarrak
- Lesakako bajera 7.500.000 Pta. negoziag.

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

IRUÑEA. Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 231469 (Ainhua). Eguerditan edo gaueko 9etatik aitzinera.

IRUÑEA. Neska bat behar da pisua osatzeko unibertsitatearen ondoan. ☎ 241369 (eguerditan edo gaueko 9etatik aitzinera).

Aker txuri bat falta de Lesakan. ☎ 627573 (arratsaldetan).

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Vaporettoa salgai. ☎ 634093.

Sofa-cama bere bi besaulkiekin eta bigarren eskuko labadora salgai. ☎ 634089 (Arantzan. Deitu arratsaldeko 6etatik goiti).

Trikitixa erosiko nuke, bi-

garren eskukoa (si bemol). ☎ 630421.

Komertziorako mogleak salgai: egurrezko estanteria lau modulo, frigorifiko-kongeladorea (murala) eta pisu elektronikoa. ☎ 630976.

Lauburu bat duen giltzaria aurkitu da giltza batekin Lesakako Gazte Egunen kontzertua egin zen parkean. Jabeak giltzaria berreskuratzeko Lesakako Arranora dei dezake. ☎ 948-627597. Arratsaldeaz asteartetik igandera.

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta sellosa ere, edo nahiago badituzue pasatu gure bulegotik.

Sail hau dohanekoa da.
Norba it zoriendu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1 31780 BERA



Itziar Agirre Etxeberria
etxalartarrak 17 urte egiten ditu azaroaren 19an. Zorionak familia guziaren partez.



Patxi Telletxea
etxalartarrak 26 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Zorionak familia eta zure pottokaren partez.



Kinito Obregozo Oteiza
iruritarak azaroaren 4an bete ditu 31 urte. Iruritako artzain erotikoenari zorionak etxekoandre eta Kallejeran partez.



Saioa Mariezkurrena Ziganda
leizarrak 5 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Garbiñe eta Maitaneren partez.



Jose Mari Aldabe Rekarte
igantziarrak azaroaren 10ean bete ditu urteak. Zorionak eta musu bat, zure seme-alaba eta andrearen partez.



Iker Tainta Noble
lesakarrak azaroaren 12an bete ditu 10 urte. Zorionak gure bihotzeko azukre koxkorra. Aita eta ama.



Joar Tainta Noble
lesakarrak azaroaren 12an bete ditu 4 urte. Zorionak gure bihotzeko Ttraperika. Aita eta ama.



Neli Erasun Mindegia
igantziarrak azaroaren 16an bete ditu urteak. Aunitz urtez etxekoen partez.



Bittor Iparragirre
exkurarrak 19 urte bete ditu azaroaren 12an. Zorionak bere familiaren partez.



Mikel Salaberria Mutuberria
goizuetarrak azaroaren 7an bete ditu 2 urte. Zorionak zure familiaren partez.



Iñaki Zabaleta Sukuntza
leizarrak azaroaren 15ean 2 urte bete ditu. Zorionak guraso, Jon anaia eta bereziki Axunen partez.



Asier Irazoki Indaburu
beratarak 2 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak etxekoen partez.



Mañebes Elgorriaga Mikelperezina
alkaigarrak azaroaren 12an bete ditu 27 urte. Aunitz urtez zure etxekoen partez.



Josu Tomasena Losada
etxalartarrak azaroaren 14an bete ditu 9 urte. Zorionak.



Unai Mendiberri Aldaz
donamariarrak azaroaren 15ean bete ditu 11 urte. Zorionak Patta eta Naroaren partez.



Elisabette Zozaiaga Agirre
beratarak 11 urte bete ditu azaroaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat.



Maite Mariezkurrena Ibarra
elgorriarrak azaroaren 26an beteko ditu 30 urte. Zorionak, C.O.



Iñaki Erasun Olazar
irundarrak azaroaren 26an beteko ditu 4 urte. Zorionak bere lehengusu Endikaren partez.



Alaia Altzugarai Legazkue
lesakarrak abenduaren 1ean beteko ditu 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat.



Nekane Goia Telletxea
lesakarrak azaroaren 13an bete zituen 29 urte. Senarraren partez zorionak eta aunitz urtez.



Haizea Belarra Eneterreaga
doneztebarrak azaroaren 17an bete ditu 15 urte. Zorionak.



Jon Iturralde Gortari
arizkundarrak abenduaren 3an beteko ditu 14 urte. Zorionak eta muxu haundi bat guraso eta arriben partez.



Miren Itxaso Arretxea Bidegain
nartbetearrak azaroaren 22an bete ditu 7 urte. Zorionak!



Izaro Goikoetxea Eskudero
goizuetarrak azaroaren 13an bete ditu 11 urte. Zorionak zure lagunen partez.



Beñat Maia
lesakarrak azaroaren 15an bete ditu 12 urte. Zorionak.



Jon Mutuberria Huizi
elgorriarrak azaroaren 27an beteko ditu 9 urte. Zorionak eta muxu haundi bat.



Aiert Ordoñez
7 urte beteko ditu azaroaren 27an. Erdi beratar honi aunitz urte.



Mertxe Arburua
zugarramurdiarrak azaroaren 23an beteko ditu 61 urte. Zure nesken partez. Zorionak potxola!



Juan Irazoki
zugarramurdiarrak azaroaren 22an beteko ditu 63 urte. Zure nesken partez. Zorionak potxola!



Ander Rodriguez Korta
beratarak azaroaren 12an beteko ditu 9 urte. Aunitz urtez!



Pedro Mari Izaguirre
Ameriketako bizi den Sunbildarrak azaroaren 10ean bete ditu urteak. Zorionak Juana M^a, Miren eta Elixabeten partez.



Itxaso Larretxea Elizondo
doneztebarrak azaroaren 10ean bete ditu 3 urte. Muxu haundi bat familiaren partez.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Narbarteko Maite Bertizeri, zorionak azaroaren 3an

egun polita pasatuko zenuelakoan. Ongi pasa zure lagunekin. Narbartetik.

Zorionak Gorka eta Iza-kun: azkenean lortu duzue gertatu behar zena. Ordu

zen! Lesakako neskatxa batzuen partez.

Laura: utzi erretzeari, zure onerako dela. Lagun on bat.

Zorionak Sunbillako Gar-


biñe Almandoz-i bere urtebetetzean (azaroak 7), bere familiaren partez. Muxu haundi bat.

Elgorriagako Jesus Mariri (Txato): Ea berehala

sendatzen zaren. Elgorriagako kuadrilla.

APROBETXA ITZAZU GURE ESKAINTZAK


urte batean
ordaintzeko
aukerarekin
interes-tasarik
gabe!!



**MUEBLES
AMETS**
mobleak orokorrean

Erakusketa

Bidasoa karrika, 45 eta 60 • **BERA**
Telefonia: 948-630537



EHIZARI BURUZKO JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 18 jatetxe eskainirik
EHIZARI buruzko Jardunaldi Gastronomikoak izanen dira abenduaren 1a arte.

Usoa, basurdea, oreina, erbia edo oilagorrek
toki garrantzitsua betetzen du gure
sukaldaritzan. Aukera ona dago
egun hauetan Baztan-Bidasoako
bailaretan murgiltzeko eta
ehiza menu goxoa
dastatzeko.



1.500 eta 3.500 Pta.
arteko menuak
(ardoa eta BEZ kanpo)

Dena den, jatetxe guztiek
beren ohiko karta eta
zerbitzuak eskainiko
dituzte.

JATETXEA

ALMANDOZ	
Beola.	58 50 02
ARANTZA	
Burlada.	63 40 27
BERA	
Matxiarena.	63 00 33
Zalain.	63 11 06
DONAMARIA	
Donamariako Benta	45 07 08
DONEZTEBE	
Amezti.	45 00 28
Belarra.	45 03 06
ELIZONDO	
Eskisaroi.	58 00 13
Galarza.	58 01 01
Txokoto.	58 03 49
IGANTZI	
La Villa.	63 72 90
IRURITA	
Olari.	45 22 54
Taberna del Fotógrafo.	45 20 87
LESAKA	
Casino.	63 71 52
Hotel Bereau.	62 75 09
Kozkonta.	62 75 19
OIEREGI	
Hotel Mugaire.	59 20 50
URDAZUBI	
Indiano-Baita.	59 90 21

LAGUNTZAILEAK

Diario de Noticias
Cooperativa de Hostelería
Barón de Ley ardoa
Westeiner garagardoa

ANTOLATZAILEA



BENTA-BERRI

LARRVAREN ETXEA

Ibardinga Gaina • 948.63 07 08 • BERA



Larruzko arropak eta osagarriak
Goi mailako kalidadea eta
aukerarik zabalena
hementxe bertan

**MERKEALDIAK
ERREGE EGUNA
BITARTE**

**EGUNERO
IREKIA
DUGU**

**BAITA LARUNBAT
ETA IGANDETAN ERE**

goizeko 9,30etatik
arratsaldeko 7ak arte